



GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK: BIZIPENAK ETA ESKARIAK

EUSKO JAURLARITZA

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE INTERIOR,
JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

ISBN 978-84-457-3256-4



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

GENERO INDARKERIAREN
BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK:
BIZIPENAK ETA ESKARIAK

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2012ko iraila

Ale-kopurua: 1.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egileak: Edefundazioa. Ikerta Socialen Zerbitzua

Itzulpena: Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Saila

Azala: Obraren izenburua: *Labirintoa*
Egilea: Blanca Perez de Unzueta Arrieta
(Egileak dohainik lagatzen du azaleko irudia,
liburu hau argitaratzeko bakar-bakarrik)

Fotokonposaketa: Composiciones RALI, S.A.
Costa, 12-14 – 48010 Bilbo

Inprimaketa: ONA INDUSTRIA GRÁFICA
Pol. Ind. Agustinos, C/. F, s/n.,
Pamplona/Iruña - Navarra

ISBN: 978-84-457-3256-4

L.G. BI 1463-2012

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK: BIZIPENAK ETA ESKARIAK

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA
Genero-indarkeriaren Biktimei
Laguntzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INTERIOR,
JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Dirección de Atención a las Víctimas de
la Violencia de Género

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Eskerrak eman nahi dizkiegu txosten hau egitea ahalbidetu duten emakume guztiei, beren sufrimendu eta bizipenak hitzez adierazteagatik, erakundeei beren eskaerak eta tratatu txarren bidean aurkitu dituzten ga-beziak helarazteagatik, gizarteari aurrera jarraitu nahi dutela erakustea-gatik, beren seme-alaben interesak defenditzeagatik eta beren beldur eta esperantzei buruz argi eta garbi hitz egiteagatik.

Bizitzen historia hauek, zalantzarik gabe, lagungarriak izango dira genero-indarkeriaren arloan erakundeen lana hobetzeko; azken aldian asko aurreratu da, baina, ikerketaren benetako protagonisten iritziz, argi geratu da lanean jarraitu behar dela emakumeen eta beren seme-alaben eskubideak defenditzen, eta lan hori kalitatez eta, batez ere, goxotasunez egin behar dela, topikoak eta aurreiritziak alde batera utzita.

Eskerrik asko zuen ahotsagatik, lekukotzagatik eta bizitzeko gogoagatik.

MARIOLA SERRANO ARGÜESO

Genero-Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaria

AURKIBIDEA

1. Sarrera	11
2. Metodologia	17
3. Taldean parte hartu duten emakumeen ezaugarri soziodemografikoak: genero indarkeriaren biktimen profilik ba al dago?	25
4. Tratu txarren istorioak	29
5. Genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeen kezka nagusiak	43
5.1. Prozesuaren hasiera, erasotzailearekin harremana hautsi ondoren: <i>arantzadun arrosa</i>	45
5.2. Erasotzaileari salaketa jarri ala ez: <i>salaketaren inguruko dilema</i>	47
5.3. Erasotzaileen zigorrak: <i>eraginkortasunik eta poztasunik eza</i>	51
5.4. Biktimak babesteko neurriak: <i>beharrezkoak baina bidegabeak</i>	55
5.5. Tratu txarrak jasandako emakumeen seme-alaben ongizatea: <i>adingabeak ere biktima dira</i>	57
5.6. Arazo ekonomikoak eta erasotzailearekiko lotura ekonomikoa: <i>beste eragozpen bat, pobretzea</i>	63
5.7. Gizartearen eta erakundeen laguntza: <i>emakumeak bakarrik sentitzen dira</i>	67

6. Baliabideen erabilera eta balorazioa	69
6.1. Polizia baliabideak	71
6.2. Baliabide judizialak eta laguntza juridikorako baliabideak. .	74
6.3. Osasun baliabideak	80
6.4. Baliabide psikologikoak	81
6.5. Larrialdiko baliabideak: harrera etxeak	90
7. Lan saioetan parte hartu duten emakumeen proposamenak. . .	93
8. Bibliografia.	105



1. Kapitulu

SARRERA

2 011ko azken lauhilekoan, *Eusko Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak* genero indarkeriaren biktime izandako emakumeen talde bat osatu eta dinamizatzeko proiektua jarri zuen martxan.

Zehatzago esanda, proiektuarekin ondokoa lortu nahi izan da:

- Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan eta esku-hartzean dauden hutsuneak antzematea eta ahalik eta errealitate kopuru handiena ebaluatzea.
- Indarkeriaren biktime izan diren emakumeen iritziei eta ideiei buruzko informazioa batzea, talde horrekin egiten den prebentzioa eta esku-hartzea hobetzeko balizko proposamenak aztertzeke xedearekin.
- Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren balizko lan ildoak identifikatzea.
- *Euskal Autonomia Erkidegoan genero indarkeriaren biktime diren emakumeen arreta osorako lege berrian sar daitezkeen proposamenak identifikatzea.*
- Emakumeek, zenbait lekutan, beren testigantza azaltzeko aukera baloratzea.

Dokumentu hau adierazitako proiektuaren azken txostenari dagokio, eta *EDE Fundazioaren Ikerketa Sozialerako Zerbitzua eta Suspergintza Elkartearen Emakumearen Saila* arduratu dira haren garapen teknikoaz.

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak honelaxe definitzen du genero indarkeria: «Emakumeen eta gizonen arteko botere harreman desberdinen markoan

emakumeek emakume izateagatik jasaten duten indarkeria». Biolentzia mota honetan indarkeriazko jarrera duenaren eta indarkeria jasotzen duenaren generoa oso lotuta daude izandako indarkeria jarrerarekin, gizon erasotzaileek emakumeen gaineko kontrolari eta haien gaineko nagusitasunari eusteko duten nahian oinarritzen baitira.

Ildo horri jarraiki, Zuzendaritza honek emakumeen aurka egindako hainbat indarkeria forma bereizten ditu: bikotekideak edo bikotekide ohiak egindakoa, familia barnean egindakoa (bikotekideak edo bikotekide ohiak egindakoa izan ezik) eta sexu askatasunaren kontrako hutsegiteak (sexu gehiegikeria, sexu eraso, sexu jazarpena eta lantokian edo beste instituzio batzuetan beldurraztea, exhibizionismoa, sexu probokazioa, adingabekoen galbideratzea, behartutako prostituzioa, neskabilen eta emakumeen salerosketa eta adingabekoen pornografia).

Genero indarkeriaren gaineko datuak dagoen genero indarkeriaren zati txikitzat hartu behar dira, emakumeek salaketa jartzeari esker zenbatu daitekeena, hain zuzen; baina azterketa honetatik at ditugu emakumeen aurkako hainbat indarkeria-egoera, salatzen ez baitira eta; hortaz, ezkutatuta geratzen dira.

Indarkeriaren genesia dela-eta, hainbat eratako izaera eta eragina duten faktoreen multzoa hartu behar da kontuan. Alde batetik, makrosistemaren parte diren faktoreak daude; gizarte/sexu antolamendua; lanaren antolamendua; sinesmen sistemak; sexuarekin loturiko ideologiak; kultura ereduak edo bizitza estiloak. Faktore horiek elkarrekikotasuna dute mikrosistema mailari dagozkion familia eta bikote ereduarekin. Gainera, faktore horiek ezaugarri psikobiologiko zehatzei atxiki behar zaizkie; adierazitako gainerako faktoreekin elkarreaginean sartzen direnean, indarkeria eragin baitezakete.

Emakumeen aurkako indarkeria estrukturala da, hau da, jarrera ol-darkorrek pertsona jakin batzuk gauzatzen dituzte beren harreman pribatuetan, baina fenomenoaren azalpenak aurkitzeko gizartearen egitura patriarkalera jo behar dugu.

- 2010ean guztira 4.285 biktimizazio erregistratu ziren, 2002ko bikoitza.
- 2010eko biktimizazio kopuruak 3.507 emakume biktimarekin egiten du bat, eta horietatik % 68k salaketa jarri dute Ertzaintzan.
- Biktimizazioen % 75ek bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik erasoak jaso duten kasuekin egiten dute bat, horietatik % 19k familia barruko indarkeria jasan dute, eta gainerakoek askatasun sexualaren aurkako erasoak. Gainera, biktimen % 31 atzerriko emakumeak dira.

*Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren datuak,
Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkionak.*

(Datuek biktimizazioari egiten diote erreferentzia, hau da, gertakariak kontabilizatzen ditu, eta ez pertsonak edo biktimak).

Adibide gisa, Bizkaian, emakumeen % 3,3k adierazi dute indarkeria egoerak bizitzen edo bizi izan dituztela azken bi urteotan; % 22,1ek dio egun, sarritan edo noizbehinka jasaten dituztela etxeko esparruko indarkeria adierazten duten hamalau egoeretako bat, gutxienez. Bizkaian bizi diren emakumeen % 19,1ek baieztatu dute etxe esparruko emakumeen aurkako indarkeriako kasuren bat ezagutzen dutela euren inguruan.

*BIZKAIKO FORU ALDUNDIko datuak.
Emakumeen aurkako indarkeria etxe esparruan. Bizkaiko Lurralde
Historikoan egindako ikerketa baten emaitzak. 2009.*



2. Kapitula

METODOLOGIA

Garatu beharreko azterketaren helburuak lortzeko egokitzen jo da metodologia kualitatiboa eta, zehazki, eztabaida taldeen edo foku taldeen teknika erabiltzea, hau da, pertsona multzo bat hartzea euren iritziak azal ditzaten.

Oro har, pertsonok auto-behaketarako eta auto-analisirako ahalmen gutxi dugu, beraz, ez zaigu erraza egiten elkarriketariak eskatzen digun hausnarketa horren ondorioz sortutako ideiak argi eta garbi adieraztea. Taldearen egitekoa, ideien elkartrukearen bidez, hausnarketa lan hori erraztea eta indartzea da. Gainera, aipatutako teknika ideia, ikuspegi, konponbide-aukera berriak eta abar sortu eta jasotzeko metodologia bikaintzat jo da.

Lantalde horiek beste teknika batzuek eskaini ezin dituzten ezagutzarako eta analisirako aukerak ematen dituzte. Taldean «norbanakoen erantzunak biderkatu egiten dira eta ikuspuntu gehiago partekatzen dira». Norbanakoek babes handiagoa sentitzen dute taldeko gainerako pertsonen artean, eta indibidualki baztertuko lituzketen galderak erantzutera «jotzen» dute.

Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren (harreman afektiboa, elkarrekin bizi ez arren) *indarkeriaren biktima izan diren* 28 emakume hartu dute parte orotara taldean. Erasotzailearekin lotura afektiboa behin betiko etendako emakumeak dira; halakotzat hartzen dira erasotzailearengandik, izatez edo eskubidez, gutxienez urtebete bereizita daramaten emakumeak.


Baldintzak betetzen zituzten eta azkenean taldean parte hartzea onartu duten emakumeak identifikatzeko kontaktuak Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak eta Suspergintza Elkartek eskura di-

tuzten datu baseetatik lortu dira. Emakumeek parte har dezaten, fase honetan bereziki garrantzitsua izan da proiektuaren garrantzia eta erabilgarritasuna helaraztea. Adinari, herritartasunari, eta abarri dagokionez parte hartzaile talde ahalik eta heterogeneoena lortzea lehenetsi da.


Proiektua behar bezala garatzeko, diziplina anitzeko talde teknikoaren aldeko apustua egin da eta honela osatu da taldea: informazioaren eta dokumentazioaren tratamenduan, gestioan eta ikerketa sozialean espezializatutako pertsonala, eta genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeen esku-hartzean espezializatutako profesionalak.

Taldearekin egindako lana aurrez aurreko *lau saiotan* antolatu da (horiarako bakoitzak 3 orduko iraupena izan du); hain zuzen, proiektuaren helburuak garatzeko, *eta* parte-hartze birtualeko gune batez (*Google Sites*) indartu da. 1. eta 4. saioetarako talde osoari deitu zaio; 2. eta 3. saioetan lan egiteko, berriz, hiru azpitalde osatu dira, 8 eta 10 bitarteko emakume-kopurua zutela, eta bereizita bildu dira. Bukatzeko, behin txostena burutuz gero, aparteko 5. saiorako deia egin zen azken emaitza emakumeekin egiaztatzeko, eta hori baliagarria izan zen ideia batzuk orrazteko eta beste batzuk zehazteko, baita beraiei horren zabalkundearen berri emateko ere.

HELBURUAK



METODOLOGIA



Saio batzuek emakumeen testigantzak entzutera bideratu dira; beste batzuetan, berriz, ideiak alderatzeko lana, akordioen identifikazioa, proposamenak eta abar lehenetsi dira.

SAIO BAKOITZAREN EDUKIAK	
1. Saioa World Kafea	• Proiektuaren eta esku hartzen duten pertsonen aurkezpena. • Lan-metodologiaren aurkezpena. • Foroaren aurkezpena. • World Kafea.
2. Saioa Diagnostikoa	• Tratu txarren historian sakontzea. • Baliabideei buruzko balorazioa.
3 Saioa Gabezkiak eta proposamenak identifikatzea	• Baliabideei buruzko balorazioa. • Kezkak identifikatzea. • Proposamenak atzematea.
4 Saioa Zuzendaritzarentzako eta Legerako ekapenak	• Proposamen-panelaren aurkezpena. • Lekukotasunei buruzko hausnarketa. • Zuzendaritzak Lege-aurreproiektuan inplementatu behar dituen neurrien aurkezpena. • Emakumeen profilari buruzko datuen azalpena. • Poses bideoa biztaratzea.
Aparteko saioa	• Azken emaitzaren egiaztapena. • Txostenaren zabalkundeari buruzko informazioa.

Parte-hartze birtualeko gunearekin sormena bideratu nahi izan da, emakumeei boterea ematea eta komunitatea eraikitzen jarraitzea. Gainera, foroak informazio iturri izateko, eta eztabaidarako, parte-hartzeko nahiz kolaborazio lanerako gune izateko balio izan du.

Beharrezkoa izan da emakumeekin lan egin den taldeen ezaugarriak eta markoak zehaztea:

- Ez da talde terapeutikoa, *eztabaida* taldea baizik.
- Parte-hartzea *borondatezkoa* da, bakoitzak nahi duen eta ahal duen arte hartuko du parte.
- Dinamika bakoitzean emakume bakoitzak bere *denbora* izango du. Parte hartu nahi duen inor ez da geratuko parte hartu gabe.
- Bakoitzaren diskurtsoak *aktiboki entzungo* dira.

- Ez da moztuko eta denborak *errespetatuko* dira. Bideratzaileek mugak jar ditzakete kalterik ez eragiteko eta arreta helburuetan mantentzeko, beharrezkoa ikusten badute.
- Parte-hartzaile bakoitzak taldean landutakoa *konfidentzialtasunez* gordetzeko konpromisoa hartuko du.
- *Garrantzitsua da istorioak ez alderatzea*: bakoitzaren bizipenak bakarrak dira eta, beraz, gainerakoenak ez bezalakoak. Historia bakoitza da garrantzitsua, eman lezake beste batzuek garrantzitsua goak direla, baina ezin da neurtzeko inolako gradurik ezarri.
- Behar izanez gero, parte-hartzaileak *askatasun osoa du* taldetik ateratzeko, baina jarraitzeko esfortzua egiteko eskatzen zaie.
- *Babes espezializatua*: beharrezkoa bada, irekita gera daitezkeen norbere *istorioak* landu eta osatzeko laguntza eskatu ahalko da ondoren. Eskatzeko bidea *GIBLZ* da (Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza).

Aurrez aurreko saioak Bilboko Kale Nagusiaren 81. zenbakian dagoen Zuzendaritzaren lokaletan egin dira. Talde teknikoaz eta Zuzendaritzako langileez gain, Foroan sartu ahal izan dira bakarrik taldean parte hartu duten emakumeak, hain zuzen, erantzunen anonimotasuna bermatzen zuen gako-sistema baten bitartez.

Prozesuan zehar, eta topaketa bakoitzaren ondoren, talde teknikoak informazioa sistematizatu eta material partzialak landu ditu. Material horiek foroaren bitartez kontsultatu ahal izan dituzte emakumeek, baita txosten honen eranskinetan ere.



3. Kapitula

TALDEAN PARTE HARTU DUTEN
EMAKUMEEN EZAUGARRI
SOZIODEMOGRAFIKOAK: GENERO
INDARKERIAREN BIKTIMEN
PROFILIK BA AL DAGO?

Atal honetan taldean parte hartu duten emakumeen ezaugarri sozio-demografikoen inguruko informazioa eskaintzen da. Horretarako datuak aurrez aurreko saio batean parte-hartzaileei egindako galdetara kualitatibo labur batetik atera dira.

Adierazi beharra dago proiektuaren helburuen eta erabilitako teknika-
ren arabera, taldean parte hartu duten emakumeek lagin ez probabilistikoa
osatzen dutela, iritzia ematean oinarritzen dena eta arrazoituriko lagina
deiturikoa; azken horren ezaugarri nagusia talde txikia eta informazioa
emateko onentzat jotako kideek osatutakoa izatea da.

Ikuspuntu horretatik, hemen ematen diren datu kuantitatiboek genero
indarkeriaren biktima izan diren emakumeen populazio talde osora estra-
polatu ahal izateko beharreko zorroztasun zientifikoa dute. Edonola ere,
atal honen buruko galderaren erantzunarekiko hurbilketa orientagarria
izan daiteke.

Taldean parte hartu duten 28 emakumeetatik 25ek galdetegia eran-
tzun dute.

Profil soziodemografikoa

- % 68 Bizkaian bizi dira, % 16 Gipuzkoan eta % 12 Araban.
- Emakumeen % 60k 46 urte baino gutxiago dituzte eta % 8k 65 urte baino gehiago.
- Gau egun % 64 bananduta edo dibortziatuta daude eta % 16 ez-konduta edo bikotearekin (erasotzailea ez den besteren bat).

- % 36 unibertsitateko tituluduna da eta % 32k lehen edo bigarren mailako Lanbide Heziketa du.
- Ia erdia (% 48) lanean ari da eta % 28 langabezia dago.
- % 84k seme-alabak ditu eta ia 10 kasutatik 6tan adingabeak dira.

Tratu txarrei dagokienez

- Tratu txarrak hasi zirenean, % 48k 26 urte baino gutxiago zituen eta % 4k soilik 45 urte baino gehiago.
- Guztiek, emakume batek izan ezik, tratu txar psikologikoak jasan dituzte.
- % 80k tratu txar fisikoak jasan ditu.
- % 48k tratu txar sexualak jasan ditu.
- % 52k tratu txar sozialak jasan ditu.
- % 52k tratu txar ekonomikoak jasan ditu.
- Kasuen hiru laurdenetan emakumeek erasotzailearen aurkako salaketa jarri dute eta kasuen % 12an atestatu judiziala egon da. Gainerako kasuetan ez da salaketarik egon.
- Salaketa jarri dutenen kasuan, 10 kasutatik 8tan epaiketa egin da. Kasu horien % 48an erasotzaileak zigorra izan du.
- Emakumeen erdiek erasotzailearengandik babesteko neurriren bat dute gaur egun eta % 8k izan zuen, baina jada ez daukate. Ia kasuen erdian babes-neurria urrutiratze agindua da eta % 8k eskolta dauka.

Emakume horietatik % 80k genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeen arretarako baliabide motaren bat erabili du. Hona hemen: Zutitu, Gakoa, IRSE, Suspergintza, Biktimaren Arretarako Zerbitzuko psikologoak, etab.

Seme-alabak dituzten emakumeen artean, % 28k bakarrik erabili du seme-alaben arretarako baliabideren bat: haurtzaroaren babesa, emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiko psikologoa, terapeuta pribatuak, etab.



4. Kapitula

TRATU TXARREN ISTORIOAK

E*z dago tratu txarren istorio bakarra; istorio bakoitza da bakarra.* Testuinguru bakoitza ezberdina da, emakume bakoitzak bere bizi-penak ditu eta bere errealitatearen arabera jokatzeko du. Istorio batzuek denbora asko irauten dute, beste batzuk oso motzak dira, batzuetan eraso fisikoek muturreko protagonismoa hartzen dute; eta beste batzuetan tratu txarra ezkutukoa, baina etengabea izaten da. Emakume batzuek erasotzailea salatzea erabakitzen dute; beste batzuk, ordea, ez dira horretara iristen. Batzuetan hirugarren pertsona batek parte hartu du harremanaren amaieran eta beste batzuetan erasotzailea bera izan da harremanari amaiera jarri diona.

Indarkeriaren hasiera zehatza jakitea zaila den arren, *istorio askotan antzematen da ezkondu ostean edo emakumea haurdun geratzen denean edo lehen seme-alaba izaten duenean, hasten direla tratu txarrak edo nabarmen gehitzen direla*. Tratu txar horiek bikotekideari jartzen zaion atentzioa gutxitu delako arrazoiarekin justifikatzen dira. *Ezkongaietan jarrera oldarkorraren hainbat zantzu izan ohi dira* emakumeekin eurekin edota beste pertsona batzuekin. Horren isla izan ohi dira adibidez, mehatxuzko hitzaldiak, izaera bortitza, desleialtasun akusazioak, eta abar eta halaz ere, emakumeek ez dituzte ekintza horiek indarkeriazko jarreratzat hartzen tratu txarren *istorio* osoa bizi izan arte.

Tratu txarrak noiz hasten diren jakitea zaila den arren, ezkongaietan jarrera oldarkorraren hainbat zantzu izan ohi dira; hala ere, emakumeak dezente aurrerago hasten dira ekintza horiek indarkeriazko jarreratzat hartzen

«Benetan ez zara konturatzen noiz hasten den ere. Egunerokoa bizi duzu zuk. Konturatzen hasten zarenean beranduegi da.»

Gainera, *istorio* batzuk mugak jartzeko edo gertaera bat «normala» ez dela identifikatzeko zailtasuna dagoela azaleratzen dute.

«Ez dakit zein unetan gertatzen den... ostiko bat ematea normalizat hartzen duzu, bultza egitea ere bai, baita martxan doan kotxe batetik botatzea ere... zerbait egingo zenuen... eta konturatzen zarenean benetan berandu da.»

Horrez gain, batzuetan pasarte gogorrenak emakumeak harremana eteteko aukera mahai gainean jartzen duenean azaltzen dira, erasotzaileak ezin baitu hori onartu.

«Nik aukera asko eman nizkion eta esan nion: begira, horrela nik beste urtebete ez dut aguantatuko. Eta orduan bera egin zuena egiteko trikimailuak asmatzen hasi zen...»

Eraso fisikoak kasu gehienetan agertzen dira; hala ere, eraso psikologikoak etengabe azaltzen dira eta tratu txarrek iraun dezaten laguntzen dute

Genero indarkeriaren biktima diren eta taldean parte hartu duten emakume askok eraso fisikoak jasan dituzte, indarkeria mota horrek presentzia handiagoa edo txikiagoa izan badezake ere *istorio* bakoitzean. Indarkeria psikologikoa, bere aldetik,

tratu txarren *istorioa* guztietan zehar presente egon ohi da eta bikoteki-dearenganako mespretxua, sentimenduzko balioa edo emakumearentzako bereziak diren objektuak puskatzea (adibidez, etxeko objektuak), eta abar, etengabeko gertaera bihurtu ohi dira. *Tratu txar psikologikoak duen indarrak tratu txarraren historia denboran zehar luzatzeari laguntzen dio.* Maiztasun gutxiagorekin izan arren, zenbait kasutan sexu erasoak ere egon izan dira.

Ezkutuan mantentzen saiatu diren tratu txarra bakardadean bizi izana taldeko emakumeen artean errepikatu egiten den elementua da. Ohi-koa da emakumeek gainerakoek zalantzan jartzen dituztela sentitzea eta gertatzen dena kontatzera ez ausartzea. Auto-estimua baxuko eta beldurrezko uneak izan ohi dira eta horrek eragotzi egiten die bizimodu hobeak identifikatzea.

Sarritan ingurunearekin izaten dituzten borrokek –batzuetan ez baitituzte biktima izan diren emakumeak ulertzen–, emakume askoren isolamendu egoera ekartzen dute eta horrek zaildu egiten du bizi duten errealitateaz modu osoaz kontzientzia hartzea eta, neurri batean, tratu txarrak ezkutuan gordetzea luzatzen dute.

Emakumeek jasaten duten isolamenduak zaildu egiten du kontzientzia hartzea eta tratu txarren egoeratik ateratzea

Gainera, *babesa emateko gertuko sare informalak (lagunak, familiarartekoak...)* ez dagoen kasuetan bakardade eta isolamendu sentimendua hazi egiten da. Egoera hori atzerriko emakumeen artean ohikoa da, sarritan ez baitute gertuko harremanik edota lagunik, erasotzailearen ingurukoak izan ezik, eta horiek ere batzuetan, tratu txarra ezkutatu ohi dute.

«Hamar urte horietan zehar inork ez zuen ezer jakin, ez nire gurasoek ez inork ez zekien zer ari zen gertatzen. Lotsagarria zen eta inork ezer jakin gabe...»

Horri erasotzailearen aurreko beldur sentimendua, segurtasunik eza eta babesgabetasuna gehitu behar zaizkio. Hori dela-eta, emakume batzuek aitortu dute seguruago sentitzeko edo, behar izanez gero, beren burua defendatzeko, labanak edo espraiak aldean eraman dituztela.

Baina, *zein unetan hartzen da egoeraren kontzientzia eta erabakitzen da harremana uztea? Zerk abiarazten du erabaki hori?* Tratu txarraren hasierarekin gertatzen den moduan, ez dago kontzientzia hartzeko faktore bakar bat, aitzitik, asko dira kasu askotan onartu nahi ez zen errealitate baten amaiera abiaraz dezaketen faktoreak.

Eteteko urratsa ematera bultzatzen duten eragileek artean gehien aipatzen dena seme-alaben defentsa da

Bizi zuten egoeraz jabetzen lagundu zieten eta erasotzailea uzten bereziki lagundu zieten hainbat adierazlez hitz egin dute emakumeek. Horien artean ondokoak aipatu behar dira:

- Emakumea jabetzea dagoeneko ez dela lehengo pertsona bera, alegia, beren burua ez ezagutzea. Emakume askok gogoan dute inguruko pertsona batek iraganean izan ziren pertsonarekin bat ez zetorren beren buruen irudia helarazi zieteneko eguna.
- Seme-alabek sufritzeko beldurra. Seme-alabak dituzten emakumeen kasuan, eteteko urratsa emateko eztanda eragile nagusia erasotzailearekin bizitzen jarraituz gero seme-alabek izan dezaketen arriskuaren kontzientzia hartzearekin oso lotuta egon ohi da. Euren seme-alaba adingabeak indarkeriaren biktima zuzenak izateko (eraso fisikoa, sexu gehiegikeriak, eta abar) beldur dira emakumeak eta indarkeriarik gabeko ingurunea eskaini nahi izaten diete, emakumeak beraiek baloratuta sentituko diren ingurunea, hain zuzen. Emakumeen erreakzioa bereziki bizia izan da adingabeak presente dauden muturreko indarkeria egoeretan.
- Indarkeria fisikoko muturreko egoeretara iristea eta norbere bizitza arriskuan ikustea edo muturreko irainak jasatea (bortxaketak, familiartekoan aurreko tratatu txarrak, eta abar).
- Kasu askotan rol garrantzitsua betetzen du gertuko gizarte sareak: aldaketa emozionalen bat antzematen duten lankideak, arduratzen hasten diren seme-alaben ikaskideen gurasoak edo bizilagunak. Horiek izaten dira sarritan egoeraren berri ematen dutenak edo polizia-ri deitzen diotenak.

Emakume gutxi batzuek ere adierazi dute telebistako iragarkiek edo genero indarkeriaren kasuan nola jokatu azaltzen duten autolaguntzako liburuak ere motibatu egin dituztela urratsa emateko.

«Behin eta berriz erortzen zara, edozein egunetan gertatzen da»,
«Ez dugu ikusi nahi (...) Xehetasun txikietan ikusten duzu, zerbait gertatzen ari dela adierazten dute (...) Itsasontzia hondoa jotzera zihoan eta salbatu beharra zegoen.»

«Zu horrelako ez zinela ikusten duzunean, hasten zara konturatzen. (...) bizirik, baina hilda zaudela. Une bat iristen da ezetz diozuna, horrela ezin duzula jarraitu, agian norberarengatik aguantate liteke, baina seme-alabengatik ez.»

«Nire seme-alabak arriskuan zeuden, hitz gogorregiak zituen haien-tzat (...) Ez nuen beste aukerarik ikusten, nire seme-alabak arris-kuan zeuden.»

«Heriotzari beldurra, hiltzeko arriskua eta nire seme-alabak ama-rik gabe geratuko direla pentsatzea.»

«Ez nion nire alabari erakutsi nahi gizon batek baloratzen ez due-nik.»

«Zure seme-alabei eragiten diela ikusten duzunean eta beste mundu bat dagoela ikusten duzunean, hartzen duzu kontzientzia.»

«Nire amaren aurrean jo ninduen.»

Bikotekidearekin harremana hausten den unean «zer esango duten» beldurra nagusitzen da, jendartean azaltzeko lotsa, sinetsiko ote dituzten edo inguruak zalantza egingo ote duen ez jakitea (bigarren biktimizazioa). Segurtasunik ezak eta babesgabetasunak, ezegonkortasun emozionalak, hausturak (bizitokiarena, ekonomikoa, eta abar), eta erasotzailearekin ha-rremana hautsi ondoren sortzen den arriskuak markaturiko aldia izaten da.

Zehazki, gainditu beharreko ozto-poak eta gehien aipatzen direnak hauek dira:

- Gainerakoek, inguruak edo gi-zarteak zalantzan jartzen zai-tuztela sentitzea.
- Norbere sustraiak, sare soziala, lana eta etxea utzi behar izatea.
- Prozesu luze eta nekagarri batek sortzen duen akidura.
- Egin beharreko era askotako tramiteak: batzuk azkarregi egin behar izaten dituzte, beste batzuk konpontzeko denbora gehiegi hartzen dute, batzuen betekizunak beste batzuenekin bateraezinak dira, eta abar.
- Kasu batzuentzat erantzunik ez izateak, hutsune legalak, profesio-nalen esperientzia falta.

Hausturan, emakume askok gainerakoek zalantzan jartzen dituztela sentitzen dute, eta bide oso neketsua egin behar dute

- Pobretze ekonomikoa; independentzia ekonomikorik ez izatea edo bizilekua eta lana utzi behar izatea erasotzailearengandik urruntze-ko... Faktore horiek ez dute uzten lehen urratsa ematen, segurtasunik eza eta lasaitasunik eza (ikuspuntu ekonomikotik begiratuta) sortzen baitituzte desoreka emozionalaren erdian.
- Ondorio psikologikoak, oreka emozionala lortzeko uste zutena baino askoz ere denbora gehiago behar izaten baitute.
- Berarekin topo egitearen, erasotzaileak egin dezakeenaren, eta abarren beldur izatea.

«Eta aitortzen duzunean, esan egiten duzu eta horrenbeste jendek jartzen zaitu zalantzan, beti, beti...»

«Batzuetan motxila bat hartu, hiruzpalau gauza bertan sartu eta desagertzeko gogoia ematen dizu.»

«Eragin psikologikoa pisu handia da, bizitza guztian eramango dugun motxila.»

«Nekagarria da, hori da hitza, nekagarria.»

«Guztia edukitzetik ezer ez edukitzera igaro nintzen.»

«Hilabete ospitalean, bi urte errehabilitazioan... horrekin batera zauri fisikoak sendatu behar, epaitegietako kontuak, hamaika paper, bajak...»

«Zeure buruari harremana etengo duzula esaten diozun egunean gar handia pizten zaizu, poza sentitzen duzu eta kantatzeko gogoia sartzen zaizu, kaletik zoaz urrats irmoak eginez, ahal izan dut... baina jo... dirua, epaiketa, ofizioko abokatua, leihatila... Oso gai gogorra da, askotan sentitzen zara bakarrik (...) seme-alabei jaten emateko ere dirurik gabe egon naiz, bizilagun batek ematen zidan, lagunen batek utzi, besteak ez dakit zer...(...)»

«... pobrezia ekonomikoa. Obsesioa eragiten didan zerbait da. Beti esaten dut barreneko arazoa konpontzen duzula, baina egunero-koak aurrera egiten du, gastatzen jarraitu behar da, alokairua ordaindu behar da, medikuarengana joan behar da, koadernoak

erosi behar dira... ba imajina ezazue bat batean bi urte lan egin ezinda geratzen zaretela, bi urte (...). Aurreratutako nire diru guztiak bi urte horietan gastatu nituen. Hondoa jota geratu nintzen, dirua eskatu beharrean. »»

«Niri bizitza madarikatu guztian lan egin eta gero maleta soil batekin etorri nintzen, hantxe sartzen ziren gauzekin eta kito. (...) Ez duzu laguntzarik aurkitzen. Nik banituen gauzak, ondasunak, bizitza guztian lan egin baitut, baina jada ez dauzkat, beretzat hartu ditu gauza horiek. Nire gurasoen etxera itzuli behar izan nuen. Logelatxo batean nire alabarekin bizi naiz. Nire gurasoen kontura bizi naiz, gauza guztietan. »»

«Lasai lo egitea lortzen duzun gau horren atzetik beldurak itzultzen dira, kartzelatik irteten den unearen beldurra, berarekin topo egiteko beldurra, eskolako atean agertuko den beldurra... »»

Tratu txar egoera bat gainditzeko egin behar den bidea komunikabideen bidez helarazten dena baino edota hasieran inork irudika dezakeena baino askozaz ere zailagoa dela esatean bat datoz emakume guztiak.

Prozesua iraupen lasterketa gisara deskribatzen dute: indarrak pila-tzen joan behar da atzera ez itzultzeko. Horregatik da hain garrantzitsua gertuko sare sozialaren babesa (famiartekoak, lagunak...), espezializatu-tako baliabideen laguntza, eta abar.

Horrekin lotuta, *indarkeriarekin amaitu eta indarkeriatik ateratzeko erabakia hartzeko unean emakumeentzat esanguratsuen izan diren lagun-tzen inguruan hitz egitea komeni da:*

Gertuko sare sozialak, nagusiki familiak –ama, aita, anai-arrebak, eta kasu batzuetan, baita seme-alabak ere– zeresan handia dute tratu txar egoeratik irteteko orduan. Oro har, taldeko emakumeak bereziki esker oneko agertu dira hausturarekin batera bizi ohi diren momentu latzetan jasotako laguntzarekin.

Emakume guztiak baliabide espezializatueta jo ez duten arren, jo dutenek indarkeria egoeratik ateratzeko elementu klabetzat dute laguntza

mota hori. Guztien artean jasotako tratua nabarmentzen da (laguntza, kritikatuak ez sentitzea, eta abar) baita egoera berean dauden beste emakume batzuekin bat egitea ere (identifikatuta sentitzea, askoz ere muturragoko egoerak badaudela ikustea, eta abar).

Baliabide horiei esker, etorkizuna modu baikorrean irudika ezin dezaketen emakumeek eta tunelaren amaieran argirik ikusten ez dutenek, lortu duten beste emakume batzuen adibideak ikusten dituzte, berriz ere etorkizunari ilusioz begiratzea lortu dutenenak eta egindako balantzean hazteko giltzarriak identifikatu dituztenenak.

«Nire seme-alabekin Ertzaintzari deitu behar izan diot, eta hori euren aitarekin ez nuen egin eta lagun batekin lasai hitz egin dezaket gertatu zaidanaz (...) Garrantzitsua da horretaz hitz egitea eta borroka egitea atzetik datozeinei laguntzeko. Ezeren aurretik borroka egin behar da, norbere buruari errespetua zor baitiogu.»

«Programa honetan parte hartzea erabaki dut, egin dezakeguna gutxi bada ere, etorkizunean etor daitezkeenei apur bat lagun diezaiekegu...»

Taldeko parte-hartzaile batzuk eta besteak dauden prozesuaren barneko uneak nahiz euren errealitatea inguratu duten era askotako egoerek baldintzatu egiten dute bakoitzak genero indarkeriarekin «haustea» edo genero indarkeriatik «irtetea» baloratzen duen modua. *Guztiek uste dute aldaketa «onerako» izan dela* eta eurentzat hurrengo hau sinbolizatzen du aldaketa horrek:

- *Askatasuna*: norberarentzat eta norbere seme-alabentzat askatasuna lortzea. «Esklabotzatik urrun egotea bezalakoa da», «denbora zuretzat da».
- *Lasaitasuna eta egonkortasuna*: bizitza bikoitza edukitzeari utzi, mugikorraren edo orduaren mende egoteari utzi... Deskantsu sentazio moduko bat da. «Oraindik gogoan dut lasai lo egin nuen lehen gaua».
- *Zoriontasuna*: gauzez gehiago gozatzeko ahalmena hartzea «gauza guztiez gehiago gozatzen dut, semeaz...».

- *Nork bere burua hobeto ezagutzea eta norberarekin berriz bat egitea*: berriz ere aspaldian izan ziren pertsona horren antza dutela esaten dieten jendearekin aurkitzea. «Ez nago ezagutzeko moduan», «egun batean bat-batean more kolorea gustatzen zitzaidala konturatu nintzen», «berriz ere zeure burua ezagutzen duzu», «orain ni naiz».
- *Barkamena*: une horretan, azkenik, beren burua barkatzeko gai direla diote emakume askok. «Errua nirea ez zela ulertu nuen».
- *Harrotasuna eta poztasuna*: norbere buruaz eta lortutakoaz harro sentitzea. «Neure buruari eskertzen diot alde egin izana.»
- *Norberaren errealizazioa eta errealizazio profesionala*: Tratu txarren egoera gainditu ondoren, zenbait emakumek benetan gustuko dituzten jarduerak aurkitu dituzte, lehen inola ere egingo ez zituzketenak, bai aisiaren arloan bai arlo profesionalean. Jarduera horiei esker beren buruarekin hobeto sentitzen dira.
- *Sendotasuna*: «Ez» esaten ikastea eta egoera oso zail bat gainditu ondoren lortzen den sendotasuna. «Horrelako egoera batetik atera banaiz, edozer egiteko gai naiz».
- *Ikuspegi aldaketa*: gauzak beste modu batean ikustea lortzea, «ez zara hamaika aldiz esan dizuten bezalakoa», eta behaketa sakonagoa egiteko gaitasuna garatzea, adiago egotekoa, «argi daukat zer ez dudan nahi». «Ni ondo banago, haiek ere (nire seme-alabak) ondo egongo direla» konturatzea.

Bizitza normala egitea da taldean parte hartutako emakumeen *desio irrikatuenetako bat*, nahiz eta normalizazio hori eragozten duten faktoreak identifikatzen jarraitu: sistemak ez du lortzen beren segurtasuna bermatzetik, epaiketa eta administrazio prozesuak asko luzatzen dira, ez dagozkien zorrei egin behar izaten diete aurre, euren ingurune soziala berriz eraiki behar izaten dute, eta abar.

Gainera, *denbora luzez babesgabetasunarekin bizi behar izaten dute*, ez beldur irrazional baten ondorioz soilik, baizik eta emakumeei erasotzaileak presente egoten jarraitzen duela gogorarazten dieten egoera errealengatik. Urruntze agindua betetzen ez duenean, kartzelatik ateratzen denean,

eta abar. Kasu horietan emakumeak izan ohi dira euren askatasuna galtzen dutenak.

«Kartzelatik ateratzen dira eta nire bizitza amaitzen da, zergatik daukate eurek bizitzeko eskubidea?»»

Agian horrexegatik da euretako askoren desiorik handiena eta gehien errepikatzen dena *beldurrik gabe bizitzea*, erasotzailearekin berrelkartzeko beldurrik gabe, bere ahotsa entzuteko edo aurpegira begiratzeko ikararik gabe... Bizi duten etengabeko *alerta egoera txikitzea* lortzea:

«Babesik gabe bizitzea, beste pertsona batekin fidatzea.»»

«Fobiarik habe, pastillarik gabe, konplexurik gabe, ... gabe bizitzea, eta gero pentsatuko dut zerekin bizi nahi dudan (...) ezin dut gauza onekin pentsatu lehenik txarrak kentzen ez baditut.»»

Edonola ere, etorkizun ez urrunekoan guztiek nahi dituzte *ateak itxi*, hau da, erasotzailearekin zerikusia duen guztia atzean utzi: gehiago ikusi beharrik ez izatea, epaiketekin, urruntze aginduekin, seme-alaben bisita erregimenarekin amaitzea, norbere dirua berreskuratzea, eta abar, («eten-gabe buruan eduki beharrik ez izatea», «harengandik aske sentitzea»).

Batzuek laneko egonkortasuna lortuta, etxean seme-alabekin bizitzen irudikatzen dituzte beren buruak.

Euren burua % 100ean ondo ikustea gustatuko litzaieke, euren buruarekin seguruago egotea eta *auto-estimua* handiagoa izatea. Azken batean, *orain baino hobeto egotea*. Hori lortzeko, batzuei sufrimendua aitortu behar zaie (seme-alabek, familiartekoei, lagunek), beste batzuen kasuan, soilik euren esku dago. Baina askok euren burua identifikatu behar izaten dute aurrena, *euren nortasuna berreskuratuz*, nor diren jakin, izan ere, haietako asko, hainbat arrazoi direla-eta, emakume bat baino gehiago izan dira beren bizitzan, baina inoiz ere ez eurak berak, baizik eta izatea egokitu zaien emakumea, une bakoitzean sortu behar izan dituzten emakumeak. Azken finean, «*beren argia berreskuratuz*» behar izan dute, euren bizitzako agintea berreskuratuzeko edota aire freskoa sar dadin ate berriak irekitzeko espresio metaforiko gisara ulertuta.

«Nire buruarekin adiskidetuta (...) neure buruarekin oso haserre bainengoen.»

Bizitza sentimentalari dagokionez, batzuek euren bizitza berregin dute dagoeneko, baina beste batzuek ez dute gertagarri ikusten, ezta hamar urteren buruan ere, eta batek baino gehiagok ez du nahi ere. Tratu txarra denboran urrunago bizi izan dutenek esperantza handiagoa dute:

«Izugarria polita da norbaitekin sexu harremanak izatea eta ez sentitzea ez nazkarik ez beldurrik (...) gaur zinera joateko gogorik ez daukazula eta nahiago duzula beste norabait joan esan diezaiok ezun norbait.»

«Gizonengan sinesten jarraitzea beharrezkoa da, nahiz eta gureak putakume batzuk izan diren.»

Edozein kasutan, nahi duten gizonezkoa, gizonezko gozoa da. Ez ama, alaba, ahizpa, laguna eta abar delako maiteko duen norbait, baizik bera den bezalakoa izateagatik maiteko duena.

Ohikoa da, baita ere, nola *ingurune* fisikoa hala emozionala *berreskuratzea* aipatzea. Norbere auzoa uztera behartuta ez sentitzea eta familiaren babesa izatea.

Euretako askoren *esperantza eta baikortasun jarrera* nabarmendu behar da. Ondokoen moduko esaldien bidez irudika daiteke: «egonkor eta indartsu, lanean eta borrokan», «orain bezain zoriontsu» ikustea, eta «zaintzeko, norbere burua margotzeko» gogoarekin edo «askatasuna zer den baloratuz.»



5. Kapitula

GENERO INDARKERIAREN
BIKTIMA IZAN DIREN
EMAKUMEEN KEZKA NAGUSIAK

Euren bikotekideengandik edo bikotekide ohiarengandik erasoak jaso dituzten emakumeen kezkak era askotakoak diren arren, merezi du hasierako prozesuan, tratu txarra gainditzeko unean nahiz emakume horien etorkizunean garrantzi berezia duten hainbat kontu aipatzea:

1. Erasotzailearekin harremana eten ondoren hasten den prozesua.
2. Erasotzaileari salaketa jartzea edo ez.
3. Erasotzaileei jarritako zigorrak.
4. Biktimen babeserako neurriak.
5. Tratu txarrak jasandako emakumeen seme-alaben ongizatea.
6. Arazo ekonomikoak eta lotura ekonomikoa erasotzailearekin.
7. Erakundeen eta gizartearen laguntza.

5.1. Prozesuaren hasiera, erasotzailearekin harremana hautsi ondoren: *arantzadun arrosa*

Emakume bakoitzak bide desberdin bat aukeratu du erasotzailearekin harremana eteteko. Kasu batzuetan emakumeek etxea utzi eta salaketa jarri dute, beste batzuetan salaketa hirugarren pertsonaren baten eskutik etorri da (familiartekoak, indarkeria zantzuak identifikatu dituzten baliabideak, eta abar), eta zenbait kasutan emakumeek ez dute salaketarik jarri, nahiz eta erasotzailearekin duten harremana apurtuko zuten.

Kasu bakoitza berezia izan arren, guzti-guztiek diote *hausturaren ondoren inoiz kontziente izan ez ziren prozesu gogor bat hasten dela*; garai hori *emozionalki ezegonkorra, lausoa eta askotan kontraesankorra* izaten da.

Orduan, batzuek etxea edo euren gertuko ingurunea utzi behar izaten dute eta *deserrotzea* gertatzen da: bizileku, herri edo probintzia aldaketa, eta abar. Horri gehitu behar zaio segituan bizilekua edo lana eta seme-alabentzat eskola berria, eta abar, aurkitzeko beharra.

«Emakumeok gaizkileak bagina bezala joaten gara eta eurak (gizonezkoak) hor geratzen dira arrosa artean.»

«Ondo zaude pisu hori gainetik kendu duzulako, baina gero bizi-tzak alde guztietatik estutzen zaitu.»

Horrekin batera hasten da *erasotzailearen kontra abiarazitako prozesu guztia*: salaketak, epaiketa azkarrak horrek dakarren estres emozionalarekin, prozesu burokratiko gogorra, eta abar. Ezin da ahaztu epaileen aurrean ezer frogatu ezin dutelako une batzuetan sortzen den *ezintasun edo onarpenik ezaren sentsazioa* ere, legeari dagokionez izugarrizko babesgabetasuna sentitzen baitute.

Bakarrik sentitzen diren unea da, nahiz eta instituzioetatik kontrako mezua igorri («ez zaude bakarrik»). Iruditzen zaie geldirik daudela euren inguruan oso bizkor mugitzen den munduaren barnean (poliziak, abokatuak, psikologoak, eta abar) eta, gainera, *garrantzi handiko erabakiak azkarregi* hartu behar dituztela eta *horrela erraz huts egin daitekeela*.

«Martxan jartzen den makina bat badagoela sentitzen duzu eta zu zara makina horretako elementu bat, baina ez dakizu nora jo.»

«Zeure motxilarekin bakarrik sentitzen zara, bertan behera utzita, eta nork artatzen zaitu? Nork laguntzen dizu?», «Egun batean ezin nuen gehiago eta medikuarengana joan nintzen eta esan nion bihotzean min nuela eta elektrokardiograma egin zidan.»

«Batere orekarik ez duzun une batean erabakiak hartzeko esaten dizute, eta baliteke askotan huts egitea.»

Gainera, prozesu honetan esku hartzen duten profesionalen jarduna ez da beti egokiena: emakumeari salaketa jartzeko gogoak ken diezaioketen esaldi desagokiak, aurrerapen gutxi lortzeko emakumeak izugarrizko aha-

legina egitera bultzatzen dituen informazio falta, historia bera behin eta berriro kontatzeko aurpegi desberdin asko ikusi beharra, etab.

«17 bisita-txartel bildu nituen» (gizarte-langilearena, ofiziozko abokatuarena, SAV-BLZrena eta abarrena).»

Horren ondorioz, emakumeek oinarritzko bi kontu botatzen dituzte faltan:

- Instituzioen *laguntza pertsonalizatua*, hau da, euren eskura erreferentziatzen izango duten pertsona bat jartzea, modu pertsonalizatuan laguntzaile lanak egingo dituen. Genero indarkerian ezagutza espezifikoak dituen norbait, jarraitu beharreko prozesuen eta joan beharreko lekuen gaineko informazioa, eta abar, duena. Ez gara ari babes psikologikoaz soilik, baita, adibidez, gizarte hezitzaile batek egin dezakeen lanaz ere.
- Salaketarekin, prozesu judizialekin, jo beharreko baliabideekin, dituzten eskubideekin, eta abarrekin loturiko *oinarritzko informazio argia*. Informazio hori hil ala bizikoa da hasierako momentuetan, nahasmendu handia dagoenean eta erabaki asko ia aurrez hausnartu gabe hartu behar izaten direnean.

Esan den moduan, erasotzailearekin harremana eten ondoren, prozesua martxan jartzen den lehen etapan emakumeek izugarritzko larritasuna sentitzen dute. Gainera, aipatu behar da, *denboran nabarmen luzatu ohi den prozesu baten hasiera dela* (emakumeak amaierarik ez duen prozesu batean harrapatuta sentitzen dira, izan ere, denbora luzea igaro arren, epaiketak amaitu gabe egoten dira, erasotzaileek urruntze aginduak ez dituzte betetzen eta haiei berriz ere aurre egin behar izaten diete, baita hipotekei, zorrei, eta abarri ere) eta lehen urratsa errazten ez bada, emakumeak ia indarrik gabe egon ohi direla.

5.2. Erasotzaileari salaketa jarri ala ez: *salaketaren inguruko dilema*

Erasotzailea salatzea edo ez salatzea da eztabaida gehien sortzen duen gaietako bat. Parte hartu duten emakumeek diote erabakia emakume ba-

koitzaren egoera konkretuarekin oso lotuta dagoela, baita salatze kotan bakoitzak bere momentua aukeratu behar duela ere. Emakumeek aho batez diote edozein erabaki dela egokia eta ezin zaiola inori errua bota erasotzaileari salaketarik ez jartzeagatik.

«Bakoitzak bere motibazioak ditu eta momentu jakin batean zu ez zara gai sentitzen, ezin duzu, ez duzu nahi edo hori sinestarazten dizute. Baina gero erabakia hartzen duzu edo ez duzu inoiz hartzen. Baina ezin diozu zeure buruari errua bota. Nik 26 urte eman nituen pertsona honekin ezkontuta eta gero salatu egin nuen.»

Emakume gehienak *salaketa jartzearen* alde azaldu dira, eta ahal den heinean, lehen eraso izaten denean. Hala pentsatzen dute lehen erasoaren ondotik salaketarik jarri ez zuten edota inoiz salaketarik jartzera iritsi ez ziren emakumeek ere.

«Bai, bai, salatu, nahiz eta salaketa hori jartzea kostatu, niri kostatu zitzaidalako... baina ospitalean ingresatua nengoenean, salaketa jartzea erabaki nuen, baina ez da itxaron behar.»

«Salaketa lehenengoan jartzeko.»

«Salaketa egin bai, bai, bai, baina nik 28 urtean bakarra jarri nion eta gero kendu egin nuen.»

«Nik ez dut inoiz salaketarik jarri, baina heziketaren kontuagatik izan zen, baina lehenengoan salaketa jartzera animatzen dut, lehenengo bultzadan, lehengo oinkadan, eskua altxatzen dizuten lehenengoan... jarri salaketa guztiagatik, laguntza gehiago daude, aurrera egiteko aukera gehiago.»

«Udaltzainek emandako laguntza oso atsegina izan zen, oso ona. Salaketa jartzera animatu ninduten. Orain pentsatzen dut gauza horiek salatu egin behar direla. Bakoitzak bere arrazoiak izango ditu salaketa ez jartzeko eta arrazoi horiek errespetagarriak dira, baina nik pentsatzen dut salaketa jarri egin behar dela.»

Zalantzarik gabe, emakumeei kezka eragiten dien kontua da, izan ere *erabaki oso garrantzitsua da, ez ikuspuntu sinbolikotik soilik*, baizik eta une

horretatik aurrera makineria juridikoa martxan jartzen delako eta irtenbidea zirudiena borroka berri baten hasiera besterik ez delako: frogak, epaiketak, epaiak, eta abar. Edozein modutan, *salaketa mugarrria da prozesuan*.

«Salaketa jarri bai, baina zertarako? Salatzen ez baduzu, ez da ofiziala eta salatzen baduzu,... oraindik gehiago izorratzen duzu, orduan hasten da zailena, batetik atera zara baina beste batean sartu. Baina, noski, salaketarik jartzen ez baduzu, ez daukazu nondik hasi... legea aldatuko balitz izango litzateke perfektua.»

Orokorrean *emakumeak eurak dira salaketa jartzen dutenak*, nahiz eta batzuetan bizilagunek, familiartekoek edo baliabideren bateko langileek (osasun langileak, adibidez) ere jarri.

Lehen salaketa hori ez da beti gertatzen tratu txarraren egoerarik latzenean; aitzitik, une horretan emakumeak duen indarrarekin dago lotuta, seme-alabengan izan dezakeen eraginarekin, emakumeari gainezka egiteko falta zitzaiona izan daiteke.

«Hamar urtez denetik aguantatu eta gero jarri nuen lehen salaketa. Lehen salaketa izan zen gertatu zitzaidan guztiaren artean garrantzia gutxien zuena. Diru zorroan bost euroekin eta lau seme-alabekin utzi ninduenean izan zen. Ezer gabe geratu nintzen eta hori izan zen jarri nuen lehena.»

Batzuetan, bizi den egoeraren kontzientzia osoa izan ezean, zaila da salaketa jartzeko adorea izatea eta, beraz, *beharrezkoa da aurrez kontzientzia hartzea*.

«Salaketa jarri bai, baina horrela egiten dizutenean (eskua altxa jotzera iritsi gabe), gehienok ez gara salaketa jartzera joaten horrela egin dizutelako... eta masaileko bat ematen dizunean ere ez, eztabaidan ari zineten une batean izan delako eta oheratzera behartzen zaituenean... ez duzu salatzen... egoera hori bizi dugun bitartean, ez dugu salaketarik jartzen... orduan ez, baina gero guztiaren kontzientzia hartu dut.»

«Oso zaila da salaketa jartzea, oso zaila da egoeraren kontzientzia hartzea...»

Seme-alaba adingabeak izatea eta bizi dutenaz kontziente izatea lehen salaketa jartzeko faktore izan ohi da. *Hainbat baliabidek ere* (osasunekoak, poliziarenak, eta abar) salaketa jartzeko motibazioa eragin ohi dute.

Oro har, salaketa jartzeak *segurtasunik eza eta zalantza eragiten ditu* hainbat arrazoirengatik: zer gogo-aldartez dauden, gerta daitekeenaren inguruko ezjakintasuna, salaketa jarri diotela jakitean erasotzaileak izan dezakeen erantzuna, ingurunearen aurreko lotsa, eta abar.

Taldean parte hartzen duten emakumeek argi dute salaketa jartzea *ez dela beti erabat onuragarria izaten eta emakumeak arriskuan jar ditzakeela*, eta are gehiago azkenean emakumeak salaketa jartzeko urratsa ematen ez badu eta tratu txarren zantzuak ikusita poliziak atestatua irekitzen badu. Eta kasu horietan egoera okertu egiten da emakumeak ez badaki prozesua jada irekita dagoela.

Salaketa bati aurre egiteko garaian *babes neurriak erabat bermatuak ez egoteak* sortzen du kezkarik handiena; eta horrek eragiten duen beldurra onartzea nahiko zaila izaten da. Horregatik, *kontrol handiagoa eskatzen da salaketa jartzeko unean*.

«Nik buelta emango nioke, kontrolatzen ez duten arte nik ez dut salaketarik jarriko, izan ere salaketa jartzen badut, etxe atarian itxarongo dit beste labankada bat emateko, ba ez.»

«Uste dut salaketa jartzera animatzen ari garela, oso azkar salatze-ra, baina hori egiteko behar besteko azpiegiturarik ez dago. Indarkeria epaitegira iristen zara, eta ez da nire kasua, baina batzuk ezagutzen ditut azkenean salaketa eskuan hartuta etxera itzuli direnak ez delako behar bezain larria, edo frogarik ez zegoelako eta ezerezean geratzen dira.»

«Nik uste dut salaketa egin behar dela, baina salaketa egin ahal izateko gauza asko aldatu behar dira.»

«Nik beti izan dut salaketa jarri ez izanaren pena eta orain emakumeren bat hil dutela entzuten dudak bakoitzean arreata jartzen dut: salaketa jarria zuen eta urruntze agindua zeukan erasotzaileak... baina hil egin du.»

Zentzu horretan, hainbat emakume salaketa jarri ondoren etxera itzultzea behartuta sentitu dira eta dagoeneko bere aurkako salaketaren berri duen erasotzailearekin topo egin dute.

Beste kasu batzuetan, emakumeak etxera itzuli dira erasotzaileak dagoeneko salaketaren berri zuela jakin gabe (poliziak ireki duelako atestatua), horrek berekin dakarren arriskuarekin.

«Salatu bai, baina neurriak ere jar ditzatela, etxera salaketarekin itzultzea... astapotoak kontrola ditzatela.»

Gizartearen aldetiko ulertezintasuna ere aipatzen da. Emakumeak ez dira eroso sentitzen salaketa jartzen dutenean.

«Salaketa jartzen duzunean, zain daukazuna... egunerokoan guk kalean aurkitzen dugun egoera... onarpenik eza da, jendeak edozeri buruz ematen du bere iritzia», «lotsa ematen du genero indarkeriaren biktima zarela esateak, ez diozu inori kontatzen. Isildu egiten zara, jendeak gauza absurdoak esaten dituelako...»

«Hasieran isildu egiten zara, baina behin seguru sentitzen zarenean, eta emakume gisara osatua, lau haizetara esaten duzu. Eta norbait esaten badizu erantzun txar bat izan duela,... nik publikoki babesten dut eta ez zait axola pentsatzen dudana esatea.»

«Jendeak entzuten ninduen, baina auzokoek ez zuten ezer egin... inork ez du ezer egiten.»

5.3. Erasotzaileen zigorrak: *eraginkortasunik eta poztasunik eza*

Emakumeen alde emandako epaiaren neurriak ez direla eraginkorrak esaten dute guztiek. Eztabaida eragiten du, adibidez, urruntze aginduak zer neurri txikian betetzen diren ikusteak eta; oro har, babesten ez duten eta emakumeak ahultasun-egoeran uzten dituen neurritzat jotzen dira. Erasotzaileei jartzen zaizkien zigorren gainean, emakumeek uste dute bigunegiak direla eta ez dute haien birgizarteratzean konfiantzarik.

5.3.1. Kartzela zigorrak

Gehienen ustez kartzela ez da birgizarteratzeko konponbidea, baina positibotzat jotzen da erasotzaileek kartzela zigorra betetzea eta, oro har, *zigor gogorragoak* eskatzen dituzte, *derrigorrezko laguntza psikologikoa-rekin* batera. Emakumeak tratu txarren emailak berrezteko programen alde daude, zigorraren osagarritzko neurri gisa.

«Ez dakit, eurek ere jaso dezatela laguntza psikologikoa, baina ez kartzelara eraman eta kito. Zigor bat da, baina zuk zeure seme-alabak zigortzen dituzunean, nahia da eurek egindakoaren inguruan hausnartzea, baina ez dituzu zigortzen horrelakoak direlako, baizik eta neurriak hartzen dituzu gogoeta egin dezaten. Kartzelara eramatea ondo dago, neurri batzuk hartu ziren eta egindakoaren ondorioak onartu behar dituzte, baina ideia da ateratzen direnean, burua ez pozoiez beteta edukitzea.»

Erasotzaileak kartzela zigorra bete duen kasuetan, emakumearen kezka nagusienetako bat zigorra bete ondoren edo irteteko baimenak dituzenean, *erasotzailea kartzelatik kanpo egoteak eragiten dien beldurrarekin eta ezintasunarekin* dago lotuta. Gainera, kartzela zigorrak *ez dute konpentsatzen emakumeek bizi izandako sufrimendua* eta, batzuetan, espero dutenaren *kontrako efektua* izan dezake.

«Kartzelara zihoala esan zidatenean, mundua gainera erori zitzaidan (...) ezeren gainetik niregatik. Pentsatzen nuen gizona lau pareten artean egongo zela sei hilabetez hausnarrean eta ateratakoan nire atzetik etorriko zela. Une horretan kartzelarena ondo ikusten duzu, baina ateratakoan?»

«Zigorrak egokiak diren? Ba, egia esan, inork ezin du nire sufrimendua baloratu. Inork ezin du esan emakume baten sufrimendua hamar urte diren edo hamabost, nire sufrimendua ez du inork ordainduko, ezta ehun urte kartzelan igarota ere. Nire kasuan hiru urteko kartzela zigorra miseria bat dela iruditzen zait, bost pertsonak sufritu dugu-eta (berak eta seme-alabek). Hori paseotxo bat izan da. Baina ez dago sufrimendua baloratuko duen estatistikarik (...) kartzelatik gorroto handiarekin eta gorroto handiarekin ateratzen dira. Dena galdua daukate eta ez zaie ezer axola. Horregatik gertatzen da askotan gertatzen dena.»

5.3.2. Urruntzeko aginduak

Urruntzeko agindua da emakumeek zalantzan gehien jartzen duten neurrietako bat, *ia kasu guztietan erasotzaileek ez baitute agindua bete*. Neurri horiek, hein handi batean, *erasotzailearen borondatearen pean daude*, ez mekanismo judizialen menpe, eta *biktima da agindu hori betetzeko bermatzaile nagusia* (eurak dira erasotzailea gerturatzen bada informatu behar dutenak, telefonoz deitu behar dutenak, eta abar).

Orokorrean uste da erasotzaileek *neurriak modu kontzientean haus-tuten dituztela* (bizilekuaren aurretik igarotzen dira, emakumeei jarraitzen diete, bizilagunen batekin hizketan geratzen dira, eta abar) eta horrelakoak egin ditzakete neurriak *ez direlako behar bezain murriztaileak, ez daudelako erabat kontrolatuta, haiek haustea bat-bateko ondoriorik ekartzen ez duelako eta emakumeren batek neurriren bat hautsi dela jakinarazten duenean, kasurik egiten ez zaielako*.

«Kilometro eta erdiko urruntze agindua zeukan eta ez zuen bete-tzen. Beti zeukan aitzakiaren bat: tabako bila etorri naiz, etab. Berak ezin zen gerturatu, baina bere familiartekoak bidaltzen zi-tuen.»»

«Bost aldiz hautsi du urruntzeko agindua.»»

«Bera nire etxera gerturatu da eta nik ez dut salaketarik jarri umeak ekartzera zetorrelako, baina gero bizilagun batekin hizke-tan geratu zen.»»

«Urruntze agindu bat horixe da. Gerturatzen bada, ez dio karran-parik ematen, firmatu duen paper bat besterik ez da eta nahi duen bezala hautsi dezake paper horrek dioena... zerbait gogorragoa bilatu beharko litzateke, eskumuturrekoena ondo egon liteke.»»

Horregatik, emakume batzuek diote *behatuta eta kontrolatuta* senti-tzen direla, erasotzaileek neurria hautsi eta jazarri egiten baitituzte.

«Askotan egon da etxe azpian eta Ertzaintzari komentatu diot. Ekainean herrian ikusi ninduen eta jarraika eta ni kontrolatu nahian ibili zen 15 minutuz (...) Salaketa jarri nuen eta epaiketa azkarra egin zen, baina oraindik epaiaren zain nago.»»

Horregatik, zenbait kasutan emakumeek erasotzailearengandik babes-
teko euren bizilekua uztea erabakitzen dute edo ez dute beste erremediorik.

«Erbesteratu eta nire familia utziko dut? Oso familia zalea naiz.
Zergatik? Nik ez dut nire bizitza zigortzen. Gehienen erabakia ez
da bizi garen tokia, gure gauzak, etab. uztea.»

«Nik ez daukat zertan nire etxea, lana, bizitza... utzi.»

«Emakumeok gaizkileak bagina bezala joaten gara eta eurak (gizo-
nezkoak) hor geratzen dira lasai-lasai.»

Orokorrean, egoera horiek *ezina eta haserre*; *segurtasunik eza eta babesgabetasun sentsazioa* eragiten dituzte, eta emakumeak izaten dira behin eta berriz euren errugabetasuna defendatu behar izaten dutenak. Beste kasu batzuetan, *errudun sentimendua* ere presente egon ohi da.

«Egun santu guztian zer aritu behar dut administrazio publikoari erakusten nik arrazoi dudala, edo zer? Ez al dira eurak konturatz-
zen? Genero indarkeriaren biktima naizela dioen kartel batekin joan behar du? (...) “Nor hil dut nik”?»

«Nire bizitza miserablea gogorarazten dit. Gainean daraman des-
grazia handia eta daukadan sufrimendu izugarria.»

Beste alde batetik, *jarritako urruntze distantziak ez dira nahikoa izaten*. Kasurik gehienetan taldeko parte-hartzaileen erasotzaileek 100 edo 200 metroko urruntze agindua dute, baina distantzia hori errespetatzea ezinezkoa da biktima eta erasotzailea herri txiki batean bizi direnean edo erasotzailea biktimarengandik gertu samar bizi denean. Gainera, *erasotzaileek distantziaren gaineko helegitea jartzeko aukera izaten dute*, distantzia laburragoa izan dadin; kasu horietan erasotzailearen eskubideak nagusi-
tzen dira (non bizi den, non ibiltzen den, eta abar, izaten da kontuan) era-
soaren beraren gainetik.

«Orain ez nago lehen bezain kontentu bera kartzelatik atera da-eta,
distantzia kilometrotik berrehun metrora jaitsi didate eta nire al-
boan bizi da. Egin dutena absurdoa dela uste dut. Nolabait, dena
baloratu behar da: pertsona non bizi den, etab. (...) orain ezer ez
banu bezala da.»

5.3.3. Beste kontrol neurri batzuk

Horrez gain, erasotzaileak kontrolatzeko beste neurri batzuez hitz egingen da, hain zuzen, biktimei erasotzen jarraitzeko asmoa burutik kentzeko. Emakume guztiek babesten duten neurria da erasotzaileei *eskumuturreko elektronikoak jartzea uneoro kontrolatuta egon daitezen*.

Emakume batzuek aipatu dituzten beste neurri batzuk –nahiz eta emakume guztiek babestu ez– *eskubide-galerarekin* daude lotuta (polizia-kidegoetan edo funtzio publikoan lan eginez gero, enplegua berehala galdezatela), baita *beren nortasuna argitaratzearekin* ere (izenak, abizenak eta argazkiak eskainita), era horretan delitugile gisa ager daitezen. Orokorrean, emakume guztiak bat ez badatoz, *beren ustez neurri horiek on egin beharrean kalte egingo dietelako* (horietako askok erasotzailearekin seme-alabak izan dituzte eta hein handi batean ekonomikoki horren menpean daude, gainera ez dute beren haurrek sufritzerik nahi, ezta atzamarraz seinalatzerik ere).

«Nik gizon horrekin seme-alabak ditut eta ez dut nahi gehiago sufritzerik, ezta lagunek “zure aita tratatu txarren emalea da” esaterik ere.»

«Erasotzaile guztiak prentsan ateratzea eta mundu guztiak ikustea putakume horien aurpegia.»

«Nik ez dut ulertzen nola jarrai dezaketen kargu publikoak edukitzen, nola eduki ditzaketen arma lizentziak... pasatzen duten test psikologikoak... zertarako balio du?»

5.4. Biktimak babesteko neurriak: *beharrezkoak baina bidegabeak*

Emakumeen ustez, emakumeak babesteko neurriak beharrezkoak eta funtsezkoak dira segurtasuna zaintzeko. Hain zuzen, neurri horien babesa dutenek oso iritzi ona dute beroriei buruz eta, horregatik, *indartu behar direlakoan daude*, batez ere erasotzaileei egin beharreko kontrolak judizialki areagotzen ez diren bitartean.

Emakume-taldeko batzuek *bizkartzaina* ere izan dute erasotzailea kartzelatik irten denean eta beste batzuei *bizilekurako edo telefono bidezko jarraipena* egin zaie.

Babes-neurriak segurtasuna eskaintzeko era bat da, baina emakumeak babesaren gatibu sentiarazten ditu eta irizten diote ezin dietela uko egin.

«Nire bizitza arriskuan dago.»

«Bizkartzainarekin gaizki, izan ere, zaborra atera behar baduzu, deitu beharra daukazu, bizilagunarengana jaitsi nahi baduzu, deitu beharra daukazu, nire semeak kioskora joan nahi badu, deitu beharra daukazu. Gaizki. Baina ulertu beharra daukazu zure babes dela.»

«Jarraitu egiten zaitu eta gainera jazarri eta bizkartzaina behar duzu, izan ere igandean elkargunera joan behar duzu umeak eramatera. Miseria hutsa da.»

Horregatik guztiatik, emakumeen aldarrikapenetako bat da *erasotzaileak kontrolatzeko neurriak areagotzea*. Hau da, beren ustez, zuzenagoa litzateke eremu judizialek kontrol-gunea erasotzailearengan ere jaretzea; hots, *erasotzailea zaintzea, kontrolatzea, hari jarraitzea etab.*, egiten dituen joan-etorrien berri eman behar izatea edo haren azalean lotsa sentiaraztea.

«Neurriak eurei aplikatu behar zaizkie. Salaketarik ez dagoenean, ezin zaio inori ezer egotzi, baina bai epaia emana dagoenean. Kasu horietan, zuzenean bera joan dadila psikologo batengana eta berari jar diezazkiotela kontrol neurriak. Eta aurkezteko edo ez aurkezteko edo laguntza jasotzeko obligazioa euren izan dadila. Baita guretzat ere biktima garen neurrian, baina kontrola eurentzat (...) Birgizarteratzea barrutik kanpora ematen da eta ez kanpotik barrura.»

Eremu judizialak erasotzailearen gaineko kontrol handiagoa egiteko eskatzeaz batean, emakumeek ez dute uko egiten eta beraientzat eta beren haurrentzat babesa nahi dute.

Urruntzeko aginduen ez betetzea konpontze aldera, *arrisku oso handian dauden eta, halaber, baldintza jakin batzuk betetzen dituzten emakumeentzako kontrazaintzako neurri berria*¹ abian jarri da orain dela gutxi. Emakumeei horren berri eman zaie eta, martxan jarri berria den neurria denez, taldeko emakume parte-hartzaile gehienek ez dute ezagutzen eta ezin izan dute esperientziaren gaineko baloraziorik egin. Hala ere, oro har, nahiz eta konponbiderik *bidezkoena* ez dela iruditut, uste dute beren segurtasuna eta osotasun fisikoa bermatuko dituela eta bigarren biktimizazioaren eragina gutxituko duela.

5.5. Tratu txarrak jasandako emakumeen seme-alaben ongizatea: *adingabeak ere biktima dira*

Seme-alabak dituzten emakumeen kasuan –batez ere adingabeak direnean– hainbat gaik kezka handia eragiten diete; esaterako, seme-alaba horiek tratu txarren historia eta beste hainbat egoera nola bizi izan dituzten; erasotzaileak seme-alabekin izandako jarrera; seme-alaba adingabeek beren aita ikusi beharko luketen edo ez, eta abar.

Zalantzarik gabe, emakume guztiak oso arduratuta agertzen dira haurtzaroan tratu txar egoeran bizitzeak izan dezakeen eraginaren aurrean, azken batean, tratu txarrak utz ditzakeen arrastoen aurrean. Muturrekoenak diren kasuetan, *indarkeriazko jarrerak antzeman dira semeak helduak direnean* –kasu batzuetan semearengandik amaren kontra–. Haurtzaroan tratu txarra presente zegoen etxeetan bizi izanarekin lotzen da hori.

«Nire seme-alabengan izan duen eraginak ematen dit minik handiena... indarkeriazko jokaera bera dute haiek ere.»

Kasurik gehienetan jasandako tratu txarra ezkututzen saiatu dira emakumeak (tratu txar gertaera ez kontatuz, zauriak ezkutatuz, seme-ala-

¹ Kontrazaintza emakumeen osotasun eta segurtasun fisikoa bermatzea helburu duen neurria da, baita urruntzeko aginduen kontrola ere. Zehazki, 2011ko azaroan Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak martxan jarri zuen.

bak indarkeria egoeretatik urrunduz, eta abar), seme-alabak presente egon direnean edo erasoaren biktima izan direnean salbu, nahiz eta badirudien askotan ezkutatzen saiatze hori emakumeen kontra bueltatu dela.

«Ezkutatzeagatik, nire seme-alabak (adinez nagusiak) euren aitarekin geratu ziren bizitzen, baina sei hilabetetan ohartu ziren nik 26 urtetan ezkutatu dudana.»

«Amaren papera azken momenturaino eramaten dugu. Nik ez nuen nahi epaietara joan zitezen, baina berak (seme-alaben aitak) horretan ere sartu egin ditu diru kontuengatik. Azkenean, pentsatzen jartzen zara eta esaten duzu: hau guztia nire aurka ari da bihurtzen. Damutzen ez naizen jokatzeko modu hori baloratzen jartzen zarenean ohartzen zara zure aurka bihurtzen dela. Nire seme-alabek tratatu txarra ikus ez zezaten bera geratu da etxean eta nik joan egin behar izan dut... Nik ez dakit jokatzeko modu hori zuzena ote den, ezta noiz den seme edo alaba bati gertatzen dena kontatzeko momentua ere.»

Tratu txarra ezkutatzearen ondorio gogorrenetako bat da, zenbaite-tan, *orain helduak diren seme-alabek emakumeei eurei bota dietela errua* tratatu txarrari lehenago amaiera ez jartzeagatik edo euren aitarekin harremana izaten jarraitzea behartzeagatik.

«Gehiegi ezkutatu nahi izan nuen eta okertzen ari nintzen, orain zera esaten didate: “ez didazu ikusi nahi dudana edo ez galdetu” edo “zergatik ez duzu esan nik ikusi nuela?” Bost urte zituzten eta nik uste nuen bost urterekin ez zidatela hori aurpegiratuko, baina egiten ari dira.»

Argi dago emakume gehienek berekin daramatela haurtzaroan seme-alabei etsaitasunezko ingurua eman izanaren *kulpa sentimendua*.

«Badago zerbait, ez dakit zuei gertatzen zaizuen, hauxe: nolatan onartu dudana. Neuri buruari barkatu ez diodan zerbait baita.»

Gainera, emakume gehienek diote *seme-alabak eurek uste zutena baino askoz ere kontzienteago direla*, baita seme-alaba txikien kasuan ere.

«Nik neure alabak ez ditut inoiz euren aitaren aurka jarri, inoiz ez... baina eurek dena ikusi dute eta esan zidaten: “ez baduzu etxetik alde egiten aitak hil egingo zaitu” (6 urte zituzten).»

«Nire kasuan uste dut hasieratik esan behar dela, duen adina duelarik ere une horretan. Nire seme-alabek hainbat eszena ikusi dituzte. Bost urte zituzten orduan eta orain hamabi dituzte baina oso ongi gogoratzen dira.»

Eztabaida eta zalantza sortzen duen beste kontu bat da *seme-alabek erasotzailearekin kontakturik izan behar ote luketen*. Ildo horretatik, oinarrizko hiru gai daude: bisita erregimenak betetzea, aita erasotzaileek eskaintzen duten hezkuntza eta ematen duten eredia, eta aitaren eskubideen eta haurren eta nerabeen eskubideen arteko talka.

Seme-alaben zaintza amaren esku badago ere, hitzarmen erregulatzaileria ezartzeko epaiketaren ondoren, aitarentzako bisita erregimena ezartzen da eta emakumeek bete egin behar dute erregimen hori, seme-alabek nahi edo ez. Puntu honetara iritsita *emakumeek dilemma berri bati egin behar izaten diote aurre; alegia, ona ote den seme-alabek erasotzailea ikustea eta harekin bizitzea, zer eragin izango duen haiengan, legeak ezarritakoa bete behar duten ala ez, eta abar*. Ez dago adostasunik jokatzeko moduaren inguruan eta kontu honen inguruan era askotako esperientziak daude. Emakume batzuek uste dute aitak seme-alabei minik eman ez badie, bisita erregimenaz gozatzeko aukera izan behar duela. Beste batzuek, berriz, bisita erregimena haustea erabaki dute, bai aitak indarkeriazko jokakerak erakutsi dituelako, bai erasotzaile batek haurren gaineko eskubiderik eta ahalmenik ezin dezakeela izan uste dutelako. Beste kasu batzuetan lege ezarritakoa bete da, nahiz eta horrekin ados ez egon. Argi dago eztabaida handia eragiten duen gaia dela, emakumeak kezkatzen dituela eta antsietatea eragiten diela.

«Oso zaila da orokortzea, hain da erabaki zaila...»

«Berak umeei tratatu txarrik edo minik ematen ez badie eta hori frogatzen bada eta umeei kontrakoa esaten ez badute, uste dut aita ikusi behar dutela, normalki hiletan bitan ikusten dute, hasieran ama naizenez, asko izorratzen ninduen horrek, baina...»

«Bi aldeak ados jarri ginelako bisita erregimena sinatu nuen nik, pentsatzen bainuen senar txarra izateak ez zeukala zerikusirik aita txarra izatearekin eta nire semeak aita edukitzeko eskubidea zeukala... orain ez naiz betetzen ari bisita erregimena... gutxika ohartuz zoazen prozesua da, tratatu txarretik ateratzen zaren moduan... bat-batean konturatzen zara haurdun zaudela eta, jada, beranduegi da.»

«Ideala gehiago ez ikustea litzateke; baina, noski, non kokatzen zara une horretan?»

«Nik oraindik uste dut pertsonak beren senera etor daitezkeela, gizon horrek bere semea ikus dezakeela hainbat kautelazko neurri hartuz gero...»

«Nire abiapuntua da erasotzaile bat ez dela pertsona ona, horregatik uste dut nire alabak ez duela zertan berarekin egon... zer onura egingo dio pertsona gaizto batek?»

«Nik, neure kasuan, oso argi daukat umeentzat txarra dela, gizonak ez baitituzte maite, gu ere ez gintuzten maite eta umeak ezta ere... horiek ere umeentzako tratatu txarrak dira, guk jasaten ditugunak bezalakoak, baina gu baino babesgabeagoak dira.»

«Nik urte eta erdi daramat nire semea gizon horrengana eraman gabe.»

Edonola ere, guztiek uste dute *prebentzioa beste edozeren gainetik dagoela*. Bereziki irmo agertzen dira erasotzailearengandik sexu jazarpena edo tratatu txarrak jasandako seme-alaben amak, zenbait kasutan gertatutakoa frogatzerik ez duten arren. Ama horientzat ez dago zalantzarik, edozer egingo lukete euren seme-alabak «*salbatzeko*», baina eginkizun horretan bakarrik eta estima gutxiko sentitzen dira.

«Nire seme-alabak aurrean egoten ziren erasoak gertatzen zirenean, baina ez dira kontuan hartu eta elkargunera eramaten jarraitu behar izan dut.»

Puntualki, *atzerrian tratu txarra jasan duten emakumeen* kasu berezia aipatu da, eta emakume horiek seme-alaben zaintzari dagokionez izaten dituzten zailtasunez ere hitz egin da.

«Oraindik seme-alaben zaintza ez dago nire gain. Nire semeak bi urte ditu eta nazionalitate espainiarra du ez geundelako ezkondu-ta, amaren nazionalitatea du, baina tutoretza epaile batek erabaki behar du. Espainian esan didate pazientzia izateko (...) Eta niri zerbait gertatzen bazait?»

Zalantzarik gabe, *erasotzaileak beren seme-alabekin izan ditzakeen indarkeriazko jokaerek eragiten dute ama horien kezka, baita seme-alabei emaniko hezkuntza motak edo seme-alaba horiei eskainiko dieten erreferentzia ereduak ere*. Guztiek adierazi dute hainbat eredu eta jarrerak ez daukatela eragin onik, eta seme-alabek euren denboraren zati handia amarekin igarotzen duten arren, kezagarria da zer neurritan eragin dezakeen erasotzaileak.

«Nire zalantza handienetako bat da (...) ez dudala nahi nire semea nire aurka bihurtzea aita kendu diodalako... Nola zain dezaket nire semea eta aldi berean prebenitu gaizkia iritsi aurretik?»

«Orokorrean gizon horiek matxistak dira eta nik ez dut nahi nire semeak heziketa hori izaterik.»

Seme-alabak *elkargunean* utzi behar izatea ere ez da gustagarria izaten eta, batzuetan, esperientziak negatiboak izan ohi dira hainbat arrazoi-rengatik: bai erasotzailea oldarkor jartzen den kasuetan bisita bertan behe-ra uzteko profesionalen laguntza falta dela antzematen delako, bai seme-alabentzat kaltegarriak diren egoerak gertatzen direlako.

«Nor bait oldarkor jarritz gero, bisitak eteteko arau batzuk daudela suposatzen da. Hori kontatu zidaten niri. Iristen da... oldarkor ez... pentsa... utzi eta hartu behar den bakoitzean Ertzaintzak etorri behar izaten du...»

«Egoera surrealista horietako bat: bi urteko ume bat kartzelatik atera den bere aita ikustera doa, elkargunera... bere amarekin doa, eta haren bizkartzainarekin, guztiak doaz, bizkartzaina, ama, umea... sekulako eskandalua gertatzen da eta orduan elkar-

gunekoak beldurtu egiten dira eta esaten dute hurrengoan Ertzaintzari deituko diotela. Eta jokaldia errepikatzen da: bi urteko umea, ama, bizkartzaina eta lau ertzain elkargunean, zein onura izan dezake honek umearentzat? »

«Eska daiteke familia-elkarguneetan bisitak psikologo bat bertan dagoela egiteko, baldin eta seme-alabengatik beldurra badago (...) neurri ona da horrela ikusten baita aita nola dagoen semearekin eta balorazioa egin ahal baita. »

Zalantzarik gabe, emakumeen diskurtsoaren azpian hau dago: *aitak seme-alabak ikusteko duen eskubidea eta haurrek ingurune babestu eta osasungarri batean bizitzeko edo guraso biez disfrutatzeke eta abarrerako eskubidea elkarren ondoan jartzea.*

«Nik neure alabari ezin diot bere aita ikusteko eskubidea kendu, helduagoa denean erabakiko du ikusi nahi duen edo ez (...), bere eskubidea da, berea... »

Hori horrela izanik, *behin eta berriz aldarrikatzen da haurren eta nerabeen eskubideak aintzat har daitezela, adin txikikoen iritzia entzun dadila*, batez ere tratu txarren uneetan bertan izan badira, edo haiek badira aita ikusi nahi ez dutenak. Emakumeek hautematen dute gaur egun erasotzaileen eskubideek pisu handiagoa dutela haurrenak edo nerabeenak baino.

Laburbilduz, emakumeek aldarrikatzen dute *seme-alaba adingabeak ere emakumeen aurkako indarkeriaren biktimatzat har ditzatela* eta, hala, seme-alaben babeserako neurri hobeak ezar daitezela.

«Historia honek guztiak duen gabeziarik handiena seme-alabak dira. Inork ez ditu ikusten umeak eta erasotzaileen eskuetan jartzen dituzte. Erasotzaile batek umearen ondoan egon nahi du bakarrik amari mina emateko. Bide luzea dago egiteko, seme-alabak tratu txarren biktima direla aitortzeko. »

Honek guztiak etxean tratu txarra jasan duten *haurrak eta nerabeak babesteko baliabide gehiago* eskatzen ditu, alor horretan hutsunea antzematen baita: laguntza psikologikoa, terapiak, eta abar. Izan ere, haurrak amarekin batera baliabide terapeutikoetan artatu diren kasu bakanek oso balorazio po-

sitiboa izan dute, lanketa hori amak eta hurrek batera egin behar dutela uste baita, gainerakoan, amak tratu txar egoeratik pixkanaka ateratzea lortzen duten bitartean, haurrak esperientzia horretan harrapatuta geratzen baitira.

5.6. Arazo ekonomikoak eta erasotzailearekiko lotura ekonomikoa: *beste eragozpen bat, pobretzea*

Tratu txarra jasan duten emakumeen oztopo zailenetako bat –osasun ondorioez eta ondorio psikologikoez gain– *pobretze ekonomikoa* da. Kasu askotan muturreko dependentziara iristen da.

«Diru gabeziari buruz beti hitz egiten duguna. Obsesioa eragiten didan zerbait da. Beti esaten dut barreneko arazoa konpontzen duzula, baina egunerokoak aurrera egiten du, gastatzen jarraitu behar da, alokairua ordaindu behar da, medikuarengana joan behar da, koadernoak erosi behar dira... ba imajina ezazue bat batean bi urte lan egin ezinda geratzen zaretela, bi urte (...). Aurreratutako nire diru guztiak bi urte horietan gastatu nituen. Hondoa jota geratu nintzen, dirua eskatu beharrean.»

«Epaiketan gizon hau 30 milioi pezeta niri ordaintzera zigortzen dute. Baina kaudimengabea denez, ez da ezer gertatzen. Gizon honek kartzelan egiten du lan (...) eta 400 € garbi kobratzen ditu hilean. Nik hilean 350 € kobratzen dut baliogabetasun pentsioa (...) Lotsagarria iruditzen zait gizon hori dirua aurrezten aritzea eta nik dirua uzteko eskatu behar izatea.»

Gainera, *badira babeserako sistemarekin edo laguntza estandarrarekin bateraezinak diren kasuak* (banaketa legalik ez bada, ondasunek bien izenean egoten jarrai dezakete, baina horrek ez du esan nahi ondasun horiek bienak direnik, eta abar); hala, ez da artatzen ezkutuan geratu den behar erreal bat.

«Niri bizitza madarikatu guztian lan egin eta gero maleta soil batekin etorri nintzen, hantxe sartzen ziren gauzekin eta kito. (...) Ez duzu laguntzarik aurkitzen. Nik banituen gauzak, ondasunak, bizitza guztian lan egin baitut, baina jada ez dauzkat, beretzat hartu ditu. Nire gurasoen etxera itzuli behar izan nuen. Logelatxo

batean nire alabarekin bizi naiz. Nire gurasoen kontura bizi naiz, gauza guztietan. »

«Mila euro baino gehiago irabazten ditudanez, ez dagokit ofizioko abokaturik. (...) Hipoteka eta horrelakoak... hori ez da kontuan hartzen. »

Beste alde batetik, kasu askotan *erasotzaileek ez diete pasatzen euren seme-alaben mantenu pentsioa*, eta pasatzen badiete ere, ez dira seme-alaben mantenutik eratorritako beste gastu batzuen (ohiz kanpoko gastuak, eskolaz kanpoko ekintza, eta abar) kargu egiten.

«Ez da inolako aparteko gasturen kargu egiten: “ingelesa? Umeak ez du ingelesik behar”, badiirudi eskolaz kanpoko inolako ekintzarik ere ez duela behar, eta libururik ere ez,... nik jada ez dut ezer esaten. »

Prozesu honetan guztian *biktima erasotzailearekin lotzen jarraitzen duen erlazio ekonomikoa higadura gehigarria* da emakumeentzat. Aitak seme-alaben gastuen kargua har dezan borrokatzeak berak ere gastu ekonomikoa dakar, adibidez, bete beharrekoa litzatekeen zerbaiten alde borroka egiteko abokatu bat hartzen denean.

«Ingeleseko matrikula egitea kostatzen den 30 €-ren erdia eskatzeak abokatu bati 500 € ordaintzea esan nahi badu, ba... »

Etengabeko borrokaren eta erasotzailearekin egoera horretan harremana izaten jarraitu beharraren ondorioz, emakumeek ez dute jakiten *borrokan jarraitu edo lotura horrekin behin betiko hautsi nahi duten*, horrek dakartzan gastu guztiak beren gain hartuta.

Emakumeen *uneko aldarteak* ere garrantzia izaten du; izan ere, askok eta askok amore ematen baitute edo eskaintzen dietenarekin konformatzen dira, ez dutelako borrokan jarraitzeko indarririk.

«Ekonomikoki bere menpe egoteak ito egiten nau, benetan, ez dit inolako graziarik egiten, alabek berarekin duten lotura, lehenago edo beranduago, eten egingo da, baina bere menpe egoten jarraitzen dut, era batera edo bestera bere menpe nago. »

Mantenu pentsio batzuk zein barregarriak diren ere aipatzen da eta justiziak adingabeen ongizatearen alde egiteak duen garrantziaz ere hitz egiten da, baita erasotzailearen baliabide ekonomikoak gehiago kontrolatzearen garrantziaz ere.

«Pentsioa erdira jaitsi zidan eta orain itota nago, beno itota ez, hurrengoa.»

«Bere kontuek kontrolatuta egon beharko lukete, bere jarduera kontrolatzen duten detektibeak egon beharko lukete. ... gaizkileak dira eta hala tratatu behar dira, eta euren diru sarrera guztiek erregulatuta egon behar dute, eta jakin behar da non egiten duen lan, eta nora doazen, euren inguruko guztia jakin behar da, norbaitek eurek dagokiena betetzen dutela bermatu behar du, ezin da prozesu bat ireki eta gero berari gogoak ematen diona egiten utzi: “ba, begira, orain 300 € gutxiago ordainduko dizkizut, eta bada-kizu zer? Lortu egingo dut gainera”.»

«Automatikoki lehen egunean ken diezaiotela dirua, eta ez utzi berari dirua sartzen, agindua bidali gizarte segurantzara edo ogasunera...»

Baina seme-alabarik ez duten emakumeek ere ezin diete uko egin lotura ekonomikoari, izan ere emakume batzuk erasotzailearekin batera hartutako hipotekaren gastu guztiak ordaintzen jarraitzen dute eta beste batzuek erasotzailearengandik jasotako zorrei egin behar izaten diete aurre (maileguak, eta abar), baita erasotzailea hilda dagoenean ere.

«Mailegu batekin ahoa konpondu zuen eta niri deitu zidan, noiz eta ni ezertxo ere ez naizenean...»

Emakume atzerritarren kasuan, egoera zailagoa izan daiteke, lagunduko dien sare sozialik ez badute.

Emakumeek agertu duten beste kezketako bat da, behin dibortzio-epaia egonez gero, beraiek eskubidea dutela konpentsazio-pentsioa jasotzeko (senarrarekiko desoreka ekonomikoa baldin badago). Batzuetan emakumeek uko egiten diote pentsio horri erasotzailearekiko lotura berehala hausteko asmoz (legeak dio konpentsazio-pentsiorik zehazten ez bada, ez dagoela alarguntza-pentsioa jasotzeko eskubiderik). Kontu hau 2010eko Estatuko

Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 26/2009 Legean ebatzi zen. Lege horrek alarguntza-pentsioa jasotzeko eskubidea aitortzen die emakumeei, nahiz eta konpentsazio-pentsiorik ez izan (erasotzailearekin zuten lotura berehala hausteko bere garaian uko egin ziotelako), baldin eta egiaz-tatu ahal badute genero-indarkeriaren biktima zirela bananketa judizialaren edo epai irmo bidezko dibortzioaren unean edo heriotza dela-eta erantzuki-zun penala azkentzeagatik kausa artxibatzeko unean.

Beste alde batetik, kasu guztietan laguntza ekonomikoak ez dira lortzen errazak. Laguntzak kobratzeko prozesuak konplexuak dira, nekagarriak, bete beharreko baldintzek ez dute beti kontuan hartzen egoeren aniztasuna eta begi-bistakoa da laguntza «estandar» batzuek ez dutela balio genero in-darkeriaren biktima izan diren emakumeen arazo bereziak konpontzeko.

«Ni lanean ari naiz 18 urte bete nituenetik, izugarria da, niri nor-baitek lagundu behar dit... ezin dut neure burua mantendu. Ha-maika gorabehera... (...) etorri, ikusten zuten nola nengoen, trapu zahar bat bezala nengoela... baloratu behar bada... ikusi egin behar da... egunak igarotzen ziren... garrantzirik gabeko horren-beste gauza... ezin nuen sinetsi sistema honetan hain zaila zenik guztia engranatzea.»

Alde horretatik, emakumeek balorazio ona egiten dute *genero-indar-keriaren biktimentzako laguntza ekonomikoei*² buruz, beren ustez –adina-gatik, prestakuntza-faltagatik edo erantsitako beste eragozpen sozial ba-tzuengatik– lan-merkatuan sartzea zail samarra duten emakumeentzako laguntza baita. Dena den, gizarte-languntzaileek horietaz informazio gehiago eman beharko luketelakoan daude.

Halaber, genero-indarkeriaren biktimentzat diren *etxebizitza arloko ekintza positiboko neurriei*³ buruzko balorazio ona ere egiten dute, baina

² 2011ko maiatzaren 30eko Agindua, Herrizaingoko sailburuarena, diru-laguntzak gene-ro-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat eman eta ordaintzeko prozedura ezar-tzen duena.

³ 2006ko urriaren 4ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, gene-ro-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruzkoa.

nahikoak ez direla uste dute (Babes Ofizialeko Etxebizitzak alokairuan emateko zozketetan kupo berezi batean sartzea, kasu larrietan eta salbuespenezkoetan etxebizitzak alokairuan zuzen esleitzea edo, judizialki baimendutako kasuetan, eskatzailea jabekide den etxebizitzaren erabilera trukatzeko aukera).

Beren ustez, nahiz eta adingabekoak edo genero-indarkeriaren biktima diren seme-alabak dituen guraso bakarreko familientzat alokairuan etxebizitza sozialak gordetzen diren, kasu larrietan eta salbuespenezkoetan zuzen esleitzen dira eta larritasunaren balorazio hori beti ez da errealitatera egokitzen.

Emakumeak ere kezkatuta azaldu dira laneratzearen inguruan, batez ere 45 urtetik gora dituztenak. *Enplegua sustatzeko neurriei*⁴ dagokienez (enplegu- eta prestakuntza-programetan sartzeko lehentasuna emanez), uste dute ez direla nahikoak eta beroriek kontratatzeko diru-laguntzek ez dituztela enplegatzaileak horretara bultzatzen.

5.7. Gizartearen eta erakundearen laguntza: emakumeak bakarrik sentitzen dira

Batzuetan erasoak jasan dituzten emakumeak *bi aldiz sentitzen dira biktima*: erasotzailearen ondorioz eta gizartearen (osorik hartuta) ondorioz. Bigarren biktimizazio hori *inguruneak bere egoera ulertzen ez duenean gertatzen da, errua botatzen dio* tratu txarretik aurretik atera ez delako, epaitu egiten du, eta abar. Tratu txarren gaineko *ez ulertze soziala* dago eta horrek emakumeen gaineko epai moralak eragiten ditu.

«Egin behar duzuna da senargaia ondo hautatu» (auzitegiko mediku batek hiltzen saiatu diren biktima bati esana)

«Baina agoantatu egiten zenuenez...»

Gizarteak gero eta barneratuago duen arren genero indarkeriaren gaitzaren inguruko mezua, emakumeek nabaritzen dute tabua izaten jarrai-

⁴ 329/3003 Dekretua, abenduaren 23koa, lanerako laguntzak arautzen dituen.

tzen duela, *ingurukoak (bizilagunak, lagunak, eta abar) ez baitira inplikatzten* eta erreakzionatzen ez duten eta beste alde batera begiratzen duten tratu txarraren lekuko mutuek existitzen jarraitzen dutelako. *Axolagabetsun soziala* dago.

«Inor ez doa zurekin bere aurka salaketa jartzera, nahiz eta mundu guztiak jakin nolakoa den.»

Gainera, hainbat *gizarte estereotipok* erasotako emakumeen aurka jotzen dute, izan ere «tratu txarrak jasaten dituen emakume estandarren» barruan sartzen ez diren haiek are eta gutxiago hartzen baitituzte aintzakotzat.

«Zu, zeure nortasunarekin, zeure prestakuntzarekin...»

Orokorrean, *sentsibilizazio sozialaren falta* sumatzen da. Emakumeentzat kezkagarria da hori, erasotzaileek askatasun osoz jarrai baitezakete erasotzen eta emakume gehiagok jasango baitituzte tratu txarrak, gizartearen aldetik erantzun azkar eta eraginkorrik jaso gabe.

Ildo horretatik *haurtzaroko eta nerabezaroko hezkuntza mailetan sentsibilizazio handiagoa* eskatzen dute sutsuki, adin txikietatik lantzen hasita soilik gutxituko baitira indarkeriazko jarrerak eta errotuko baitira emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren zutabeak.

Halaber, kezkagarria ere bada *instituzioetatik emandako babes urria*, genero indarkeriaren alorrean asko aurreratu dela antzematen bada ere, hutsune legalek eta sozialek bere horretan baitiraute eta administrazioak ez baitie erantzuten hutsune horiei: laguntzetarako baldintzak beti ez dira beren errealitateekin bat etortzen, bateraezintasunak sortu ahal direlako eta, kasu batzuetan, emakume gehienei eskuratzeko aukera murrizten dieten kupoak jartzen direlako.



6. Kapitula

BALIABIDEEN ERABILERA ETA BALORAZIOA

Jarraian, emakumeek beren esku jarritako baliabide publikoen inguruan emandako balorazioak jaso ditugu. Genero indarkeriaren kasuetan, oinarrizko diren baliabideak baloratu dira: polizia baliabideak, emakumeek lehendabizi jotzen duten baliabidea delako; baliabide psikologikoak, genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeak artatzeko funtsezko baliabidea delako; eta abar.

6.1. Polizia baliabideak

Genero indarkeriaren biktima izan diren emakume askok polizia baliabideetara jotzen dute lehenik; geroa-go, tratatu txarren istorioak gaingintzeko prozesuaren hainbat unetan ere haiengana joko dute. Sarritan polizia emakumeen bizilekuetara joaten da familiartekoren batek, ezagunen batek edo bizilagunen batek indarkeriazko pasarte posible baten (normalean larria) berri eman ostean; baina lehen aldiz euren egoera salatzen dutenean ere komisariara jotzen dute emakumeek, eta bertara itzultzen dira asko, poliziei mehatxu berrien, urruntze agindua haustearen, eta abarren inguruko informazioa emateko ere.

Oro har, polizia baliabideak modu positiboan baloratzen dira eta arreta azken urteotan nabarmen hobetu dela uste da

Orokorrean, taldean parte hartu duten emakumeen iritziz baliabide horrek emaniko zerbitzua hobetu egin da azken urteetan, ziurrenik polizia-rekin trebakuntza eta sentsibilizazio lan handia egin delako, baita zenbait polizia agente genero indarkerian espezializatu direlako ere. Orain dela hogeit hamar urteko polizia baliabideen balorazioak gaur egungoekin alderatzen baditugu, hobera egin dutela nabari da. Oro har, esan

daiteke emakumeei errua botatzetik emakumeei salaketa jartzeko prozesuan laguntzera igaro dela polizia.

Orain dela 30 urte baino gehiago biktima izan zen emakume baten kasu zehatza:

«Lehen jipoiaren ondoren Guardia Zibilarengana joan nintzen eta esan zidaten: “egingo zenion zer bait zuk, ez da ezer gertatzen”, eta etxera itzuli nintzen». (...) urte askotako gertaeran neure barruan gorde behar izan nituen, esan baitzidaten gutxi gorabehera, barru guztiak kanpoan eraman behar nituela salaketa jartzeko eta isolatutako tokiren batera lekualdatzeko (...) orduan alde egin behar izan nuen.»

Oro har, polizia baliabideak *modu positiboan baloratzen dira*, baina genero indarkeria duela gutxi jasan duten emakumeek ñabardurak egiten dituzte. Dauden baliabideei eta denboran eginiko jarraipenari (telefono deien edo etxean eginiko bisiten bitartez) dagokienez, *arreta, emandako tratua, gertutasuna, inplikazio pertsonala eta eskainitako informazioa* baloratzen dira.

Hala ere, azpimarratu beharra dago arretaren kalitatea, gaur egun ere, ez dagoela bermatua kasu guztietan. Oraindik ere hobetu beharreko arloak daude:

Ez dago genero indarkerian espezializatutako behar adina langile, hortaz, bistakoa da profesional guztien sentsibilizazio lana handitu behar dela

Genero indarkerian espezializatutako profesionalak badaude ere, *badirudi ez dituztela txanda guztiak betetzen eta emakumeek salatzen dute asteburuetan edo oporretan jai dute-nean ez dela haien ordezkorik jartzten*. Batzuetan genero indarkeriaren gaineko *espezializaziorik ez duten profesionalen artean sentsibilizazioa falta* dela antzematen dute. Kasu horietan ez dituztela biktimatzat hartzen eta beren arazoari garrantzia kentzen diotela antzematen dute emakumeek, eta uste dute profesional horien jarrerak hainbat emakume euren egoera ez salatzeraz eraman ditzakeela.

«Txulo horietako batek artatu ninduen, hura ikustekoa zen... erlojuari begiratu eta esan zidan lehen gauza zera izan zen: “Beno, afaltzera joateko ordua da, ziur zaude salaketa jarri nahi duzula? Zeren hau oso luzea izaten da, oso luzea, galdera mordo bat erantzun beharko duzu...” Ni zur eta lur geratu nintzen, oso ondo bainengoen eta pentsatu nuen: seguru ez dagoen norbait hona bakarrik etortzen bada urratsa ematea kostatzen zaionarekin eta tipo honekin elkartzeko bada, buelta hartu eta etxera doa.»

Horren inguruan adierazi dute garrantzitsua litzatekeela polizia agenteek eta jarduera protokoloek emakumeek komisarian sentitzen duten «blokeo» *sentsazioa* kontuan izatea. «Blokeo» hori izuak eragin ohi du, emakumei gertatu dena gertatu den bezala kontatzea eragozten die, eta ez dira gai izaten eskaintzen zaien informazioa ulertu eta prozesatzeko. Batzuetan ez ulertuak eta zapalduak sentitzen dira eta ez dakite zer komentatu zaien gehien. Horri guztiari salaketa jarri ondoko bakardadea eta larritasun sentimendua gehitzen zaizkio. Horregatik guztiatik, batzuetan, emakumeek ez salatzekeo hautua egiten dute edo deia jaso ondoren polizia bizilekura joan denean guztia ukatzekoa.

*Salaketa jarri eta ordu gutxira erasotzaileari abisatzeak ere bereziki kezkatzen ditu emakumeak, salaketa jarri duen emakumearentzat arriskua adierazten baitu horrek. Izan ere, kasu guztietan ez dira eurak babesteko behar adinako neurriak hartzen, eta batzuetan, ez zaie ere esaten erasotzaileari salaketaren berri eman zaionik. Hala, emakume batzuk etxera itzultzen dira erasotzaileak salaketaren berri duela jakin gabe. Eztabaida eragin dute, halaber, *herri txikietan konfidentzialtasuna eta anonimotasuna* gordetzeko dauden aukera urriek.*

Hobetu behar diren alderdietako bat da salaketa jarri ostean, emakumeen segurtasuna lehentasuna izatea

«Ertzaintzak oso ondo tratatu ninduen, baina nik hutsunea sentitu nuen. Pertsona horri deitzen diote bere kontra salaketa jarri duzula esanaz eta hurrengo egunean epaiketa azkarra egiten da. Nik zer diot: “Baina lagundu beharko dit norbaitek, ezta? Zeren berak hil egin nahi nau... Eta gainera bere aurkako salaketa jarri dut eta hil egingo nau, ez naiz epaiketa azkarrera ere iritsiko. Eta Ertzain-

tzak ezin du (...) abokatua saiatu zen, baina esan zuen ezinezkoa zela...»

Beste alde batetik, Ertzaintzak eskainitako arretarekin alderatuta, *Guardia Zibilak eskainitakoa oso txarra dela* azaldu dute emakumeek: espezializazio falta, errudun sentiaraztea, eta abar.

6.2. Baliabide judizialak eta laguntza juridikorako baliabideak

Oro har, baliabide judizialen inguruko zalantza gehienak *sistemaren ahulezia begi-bistan uzten duten hainbat gabeziarekin edo akatsekin* daude lotuta.

Epaiketa azkarra egotea modu positiboan baloratzen da, baina zalantza egiten da hauen inguruan: iraupena, zain egon beharreko denbora, ondo egokitu gabeko espazioak eta emakumeek epaitegieta babesgabetasun sentimendua

Zalantzarik gabe, *epaiketa azkarra egotea modu positiboan baloratzen da*, epaiketa salaketa jarri eta hurrengo egunean egiten baita. Edonola ere, epaiketa horien *iraupena zalantzan jartzen da*, emakumeak egun osoa epaitegian igarotzera behartzen baititu eta seme-alaba adingabeak dituzten emakumeen kasuan haiek zainduta egon daitezen antolatu beharra ekar-

tzen baitu. *Epaitegian denbora luzez zain egon beharra ere nabarmentzen da*, erasotzailea metro gutxira daukatelako emakumeek pasa beharreko une txarra, eta nagusiki, *desegoki prestatutako guneak*, harreman fisiko edo bisualik egon ez arren, emakumea derrigortuta baitago erasotzaileak esaten duen guztia entzutera (gertakarien ukazioa, damurik eza, eta abar). Gainera, epaiketa horiek ordu gutxiren buruan gertatutako jazoeren tesuinguru emozional oso gogorrean gertatzen da eta emakumeak *desorientatuta sentitzen dira* ohituta ez dauden *etsaitasunezko ingurunean*.

«Epaiketa azkarra komatxo artean. Goizeko hamarretatik arratsaldeko bostetara. Azkarretik ezer ere ez. Azkarra izan zen, igandetik astelehenerako gauza izan zelako, baina gero honen erdia den sala batean sartuta egon beharra... ez zait ez justua eta ez legala iruditzen. Oso desatsegina da eta gainera beldurra pasatzen duzu,

zeren nik entzun egiten nion. Goitik irekita dauden kaxak dira, pladurrezkoak eta esaten ari zena entzuten nuen, ez epailearen aurrean esaten zuena, baina bai komentarioak. Gauza horiek zaindu egin behar dira apur bat. »

«Hitz egiten entzuten duzu eta han zaudelarik ere errespetua galtzen dizu. Hori gehiago kontrolatu beharko litzateke. Epaiketa azkarrean ezin duzu pertsona bat zazpi ordu zain eduki, eta are gutxiago, umeak baditu. Ez da azkarra han egon behar duzula kontuan hartuz gero. Berak zer dioen entzuten duzu, gaizki ari zara pasatzen, galdera mordo bat egiten dizute, jendea ikusten duzu batetik bestera mugitzen eta ez dakizu zer ari den gertatzen. »

Hala ere, prozesu judiziala epaiketa azkarretik haratago doa. *Prozesu judizial hau motela da eta luzatu egiten da. Prozesuan zehar emakumeak epaiketa askotan sartuta daudenez, euren energia xahutu egiten da pixkanaka eta kasu horietan sistemaren ez ulertzea areagotu egiten da, eta inkongruentzia jakin batzuen aurrean ezina agertzen da:* instrukziozko epaitegiaren funtzionamenduaren eta genero indarkeriaren epaitegi espezifikokoaren funtzionamenduaren arteko aldeak; historia globalki ulertzen ez duen sistema baten aurreko babesgabetasuna, eta abar.

Prozesu judiziala motela eta luzea da. Higadura esan nahi du, onarpenik eza eta ezina eragiten ditu eta moteltasunak oso eragin latzak izan ditzake genero-indarkeriaren biktima diren emakumeengan

«Gaur epaiketa izan dut urruntze agindua bi aldiz hautsi duelako. 2009ko uztailakoa eta irailekoa, hori bai azkarra. 2008ko bat zain daukat. Izugarria. »

«Nik epaiketa azkarra eta beste guztiak, hau da, atzetik datorrena bereizi egiten ditut. Nire kasuan epaiketa azkarra oso ondo joan zen, bera kartzelara joan zen-eta... Gero etortzen da gerokoa, ume txikia daukazu, bisitak hasten dira, arau-hausteak ere bai... eta hor hasten gara ez genero indarkeriaren epaitegiekin, baizik eta instrukziokoeekin. Nik genero indarkeriaren epaitegiarekin ez daukat inolako arazorik, zerengatik ondo funtzionatzen baitu, baina instrukzio epaitegiak bizitza izorratzen ari zaizkit eta ez dira nire semea babesten ari. »

Prozesu judizialaren hasieran emakumeak babestuta sentitzen dira eta guztia errazagoa egiten zaie (salaketa, epaiketa azkarra, eta abar), *baina denborarekin, prozesu judizialak martxan jarraitzen duen bitartean, babes hori desagertu egiten dela antzematen dute emakumeek*; epaiketa penalak atzeratu egiten dira, ebazpenak berandu iristen dira, urruntzeko aginduak hausten dira eta berriro salaketa jarri behar eta beste epaiketa baten zain egon behar da, etab.

Horrez gain, *ebazteke dauden epaiketak ebazteko behar den denbora ez dator beti bat emakumeak «sendatzeko» behar duen denborarekin*, eta sarritan, emakumeek prozesua eteten dute.

«Justizia hain azkar doanez, bi urte eta gehiagora, ni izugarri ondo nagoenean, ateratzen da epaiketa. Prestaketa oso desatsegina izan zen, ni hiltzen ahalegintzeagatik baitzen epaiketa; abokatuarekin eseri...»

Hain zuzen ere, *laguntza psikosozialeko Programak* eskaera horri eta beste batzuei erantzuna eman nahi die. Programa hori Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren bitartez, martxan jarri zuen. Haiei entzun eta gero, ondorioztatzen da zerbitzuaren helburuak modu positiboan baloratzen dituztela. Hona hemen: egoerak prestatzeko laguntza, kasu gehienetan ezezaguna den eremu batean ibiltzeko biktimea entrenatzea, aurrez aurreko laguntza, epaiak edo hartutako neurriak ulertzeko laguntza, etab. Dena den, zerbitzu hau oraindik ezezaguna da emakume gehienentzat.

Oro har, *justiziaren moteltasuna eta horrek dakartzan ondorioen larritasuna* salatzen da.

«Eta arau-haustea salatzen baduzu, zer? Bada, hiru urte igarotzen dira eta epaiketa ateratzen da... eta orain aurkitu orain dela hiru urte zenituen bizkartzainak euren testigantza eman dezaten...»

«Asko luzatzen da, nirea orain dela urte eta erdi izan zen eta epaiketa oraindik ez da atera, tratu txarra baino lehenago aterako da dibortzioa... eta hori ere gaizki dago, dibortzioan ezingo baita jaso berak tratu txarrak eman dizkidanik...»

Zalantzan jartzen da, halaber, *erasotzaileek kontra-salaketak jartzeko duten erraztasuna*, batez ere ekonomia-maila altukoak badira. Hau da, erasotzaileak, askotan aholku legala jaso ondoren, salaketa jartzen du emakumearen aurka hark jarritako salaketa faltsua dela egotzita, emakumea bera dela tratu txarrak ematen dituen argudiatuz batzuetan edo burutik ondo ez dagoela esanaz, eta froga psikologikoa eskatzen dute. Ildo horri jarraiki, salaketak aurrera egin dezan *tratu txarrraren frogak edukitzea nahitaezkoa* dela ere adierazten da.

Genero indarkeriaren arloan profesionaltasun eta esperientzia faltaren inguruko eztabaida sortzen ari da, –ofiziozko abokatuei dagokienez batez ere–, bai eta genero indarkeriako kasuen aurrean zenbait epailek duten sentsibilizazio falta ere

Babesik eza handiagoa da *tratu txar* egoeraren zati bat atzerrian jasan duten emakumeen kasuan.

«Herrialde hartan arazo hau Espainiaren kontua zela esaten zidaten, Espainian herrialde hartakoa zela, pilota hona eta pilota hara...»

Baina ulertu ezinik eta atsekaberik handienetakoa sortzen duen gaietako bat *zenbait abokatu genero indarkeria gaietan profesionalak ez izatea eta espezializatu gabe egotea da*. Alde handiak antzematen dira defentsa espezializatua eta defentsa ez espezializatua izan duten emakumeen artean. Hala nola, ezberdintasunak daude doako justiziaren eta justizia pribatuaren artean, *ofiziozko abokatuak zalantzan jartzen baitira* euren sentsibilizazio faltarengatik, kasuaren aurrean erakusten duten interes faltarengatik, gaiaren aurreko seriotasun ezarengatik, eta abarrengatik.

«Desberdintasuna ikaragarria da. Nik, hasieran, ofiziozkoari dena xehatuta, eginda, eman behar nion. Esaten nion hau edo bestea eskatzeko... eta, dena eskura izan arren, bidetik gauzak galtzen zituen..., eta kaltetuta atera nintzen. Behin eta berriro deitu behar nion... or-dainpekoa hor dago, berak deitzen dit... nire alde egiten du.»

«Hainbat aldiz joan nintzen eta badirudi abokatu batzuek artatu nindutela norantz jo nezakeen esateko, baina behin eta berriz azaltzen nien arren, nire sentsazioa zen guztia grabazioekin eta

bestelako erremintekin erakutsi behar niela eta, hala ere, ezin zutela ezer egin. »

Hori dela-eta, *emakume batzuek abokatu pribatua bilatzeko hautua egin dute*, nahiz eta estutasun ekonomiko ugariri aurre egin behar izan.

«Nik ez dut neure bizitza ofiziozko abokatu baten eskuetan utziko, edozein toka daiteke, ez badauka joateko gogorik ez da joaten eta beti dituzte aitzakiak. Nire bizitza eta nire alabarena daude joan. »

«Bizitza osoa lanean eman ondoren, nire gurasoek etxea hipotekatu behar izan dute abokatua ordaintzeko, bistakoa den moduan nik ezin baitut ordaindu, nahikoa badut nire semea mantentzen... milioika pezeta... »

Genero indarkeriaren ganean prestakuntza espezifikoaren duten edo gai horren inguruan nahikoa esperientzia duten letratuak izan dituzten emakumeen kasuan, asebetetze maila altua da. Gainera, kasu horietan defentsa ona eskaintzeaz gain, bereziki genero indarkeriaren inguruan *eskaintako informazioa baloratzen da* (jarraitu beharreko protokoloak, baliabideetara eta laguntza publikoetara jotzeko bideak, eta abar).

«Zorte handia izan nuen: hasieratik behar bezala informatu ninduten eta salaketa jarri aurretik banekien zer gertatuko zen. Dena primeran joan zen. Hark ezin izan zuen askorik egin, harrapatuta zegoen. Haren aurrean jartzea ere ez zen beharrezkoa izan, nire abokatuak dena egin zuen eta ez nuen berriro ikusi. »

«Hasieran, nondik nora jo behar nuen adierazi zidan abokatua eduki arte, ez nuen informaziorik eduki tratatu txarrak jasotako emakumearen inguruan, ez nekien nora jo abokatu hau aurkitu nuen arte. »

Batzuetan hainbat epailek erakusten duten jarrerak ere eztabaida eragiten du eta emakumeei gaiari behar besteko garrantzia ematen ez zaiola pentsarazten die.

«Epaileak oso gaizki, ni oso gai serioarekin joan nintzen: semeari eginiko sexu gehiegikerien arazoarekin, ziegak leporaino zeudela

argudiatu zidan epaile bat tokatu zitzaidan... ez zigun entzun, hurrengo egunean joanarazi gintuen...»

Horretaz gain, baliabide judizialen balorazioa ere era batekoa edo bestekoa da prozesuan adingabeak egon edo ez. *Seme-alaba adingabeak dituzten emakumeek legearen aurrera seme-alaba horiek jasaten duten babesgabetasuna salatzen dute* (erasotzailea ikusten jarraitu behar dutelako, deklaratu beharra daukatelako, eta abar).

Justiziaren aurrean adingabeek duten babesgabetasuna da gehien arduratzen duen gaietako bat

«Urtebeteko bisitak itxaron behar izan nituen, nahiz eta elkarguneko informe izugarri latzak eduki: Udaleko biktimen babeserakoen informea eduki ditut, haurtzaroaren babeserakoenak, eskolakoak, pediaterarenak... guztiek bisitak ez egitea aholkatzen zuten... azkenean psikologo batek esan zidan bisita horiek amaitu behar nituela eta ea abokatu onik banuen galdegin zidan. Nik ezetz esan nion eta emakume bat aholkatu zidan, garestia zela, baina oso ona. Hark berak defendatuko ninduela esan zidan eta hala egin zuen. Niri hala esan zidaten: “indartsua zara?” eta nik erantzun nuen “nire semea babesteko bada, edozer egingo dut”.

(...) Ez zait inoiz ahaztuko, urtebeteko epaiketa (bisita erregimena eteteagatik), (...) eta fiskalak dio kokoteraino dagoela horrelako kasuak ikusteaz, horrelako gauzak egiten dituzten amak eta zigortu egingo nauela eta epaileari eskatuko diola umeen zaintza kentzeko, eta epaileak dio ados dagoela, segituan bisita erregimena atzera ere martxan jarri behar dela edo bestela... baina zortea izan nuen epaile horrekin. Izan ere, nirea oso oldarkorra denez, halaxe jarri zen epaian eta orduan dena ikusi zuen eta txosten guztiak irakurri zituen, bizitzan lehen aldiz norbaitek gauzak irakurri zituen, guztia jasotzen zuen epaia egin zuen eta urte batekoaz absolbitu ninduen.

(...) Izugarritzko nekea... nik epaiak hilean hiruzpalau kontatzen ditut. Bahiketa leporatuta egon naiz, orain tratu txarrak egiteagatik jarri nuena salaketa faltsua dela leporatzen zait. Zigortu egin zuten eta morroiak onartu egin zuen, zigorra txikiagoa izan zedin onartu zuen, gero salaketa faltsuengatik nire kontrako salaketa jartzen du eta epaileak onartu egiten du... nola onar dezake epaile

batek hori?, bahiketa... ez gara etxez ere aldatu, epaileak onartu egiten du... niri egunero gauza berri bat leporatzen didate.»

6.3. Osasun baliabideak

Oro har, positiboki baloratzen dira familia medikuaren segimendua eta ardura, bai eta prozesuaren arintasuna eta diskrezioa ere

Orokorrean, osasun baliabideen gaineko balorazioa (ospitaleak eta ambulatorioak) *positiboa da, nahiz eta taldean parte hartu duten emakume guztiek ez duten baliabide hau erabili eta ez den gaia sakondu.*

Emakumeek osasun baliabideetara jotzen duten bi kasu mota antze-man dira. Alde batetik, *bikotekideak egindako eraso fisikoaren edo sexualaren ondoren* eta, beste alde batetik, *gogoeta egin ostean*, eraso baten ondorio zuzena izan gabe. Lehen kasuan emakumeek desorientazio handiagoa erakusten dute eta oroimen lausoak izan ohi dituzte estres eta antsietate handiko egoera bizi izan dutelako. Bigarren kasuan, oroitzapenak argiagoak dira eta balorazioa positiboagoa izan ohi da.

«Ni behin joan nintzen, baina tratu txar psikologikoa jasaten nuen eta oso nahasita nengoen eta ez dakit. Familiarteko batek eraman gintuen nire ama eta biok (izan ere ama aurrean zegoen jo nindue-nean) eta familia medikuak aztertu egin gintuen eta ondo, berak salaketa eta salaketa errepikatzen zuen, baina ez nago ziur, ez dut ondo gogoratzen.»

Emakume batzuk oso modu positiboan baloratzen dute *prozesu guztian zehar familia medikuek erakutsitako ardura eta egindako jarraipena.*

«Ni ere oso ongi, baja eman zidaten, medikatu egin ninduten, egia esan, oso ondo. Astero joaten nintzen medikuarengana, eta asko kontrolatzen ninduen, are gehiago, gaur egun oraindik zer moduz nagoen galdetu ohi dit, jarraipen handia egin dit.»

Erasoa jasan denean eramandako *artapen prozesuaren azkartasunarekin eta diskrezioarekin* pozik daude emakumeak, baita *beharrezko azterketak egin zaizkielako eta lesioen partea helarazi zaielako ere.*

Hala ere, prozesu azkarra den arren, nabarmentzen da *zein zaila den ubelduen argazkiak egiten uztea, pertsonalak sinetsiko ote dion edo ez zailantzan jartzeak eragindako sentimendua, segurtasunik eza eta alde batetik bestera joan beharra* ezer argi eduki gabe.

Baina, nagusiki, modu negatiboan nabarmentzen da *arreta psikologikorik ez egotea emakume batek genero indarkeriaren biktima izan dela esan eta osasun baliabideetara jotzen duen unean*. Osasun arretako prozesuaren ostean salaketa jarri ala ez jarri erabakiari aurre egin beharra nabarmentzen dute emakume guztiek eta une horretan berriz ere bakarrik eta desorientatuta sentitzen direla aipatzen dute.

Alderdi garrantzitsuenak laguntza psikologikorik eza eta osasun zerbitzuetako protokolo hoberen beharra dira

«Nire kasuan ere bikain artatu ninduten (tratu txar fisikoa), baina psikologorik ez zegoen oporretan zelako eta apaiza etorri zen, eta esan nion bera han soberan zegoela. Nik uste dut gauza mordo batean arrastorik ere ez dakitela...»

Agerian jartzen dute *protokoloak eta beharrezko engranajeak* hobetzeko beharra ere, genero indarkeriaren biktima den emakume bat osasun zentro batean artatzen den unetik.

«Gizon bat bulego batean protokoloa betetzeari ekiten dio, jakin gabe ere kontua zertaz doan. Niri gertatu zitzaidanean (...), ospitalean ez zegoen inor “neska honek zer nolako familia duen, nondik atera den” pentsatzen zuenik. Izan ere, nik umea hartzaindegian neukan. Nik familiarik izan ez banu, umea oraindik hartzaindegian egongo zen, inor ez zen joango. Oso kontu garrantzitsuak dira.»

6.4. Baliabide psikologikoak

Baliabide psikologikoak *oso modu positiboan baloratzen dituzte* baliabide horiek erabili dituzten emakumeek. Baliabide horiek, orokorrean, *genero indarkeriaren biktimen arretan espezializatuta dauden entitate pri-*

*batuek gestionatzen dituzten arduraren publikoko baliabideak dira*⁵, kasu batzuetan, beste baliabide pribatu batzuetara edo espezializatu gabeko baliabideetara jo bada ere.

Baliabide horien bidez emakume gehienek *arreta psikologiko indibiduala nahiz taldeko terapia* jaso ahal izan dituzte eta bi modalitateak oso era positiboan baloratu dituzte taldean parte hartu duten emakumeek.

Laguntza psikologikoa berebiziko garrantzia du errekupeazio prozesuan, askatzea, kontzientzia hartzea, bere burua baloratzen ikastea eta tratu txarrak gainditzea ahalbidetzen baitu

Arreta psikologikoa batez ere *prozesuaren hasieran* jasotzen da (behin salaketa jartzeko, bizilekua uzteko, eta abarrerako urratsa eman denean), nahiz eta *arreta hori jasotzen deneko aldia aldatu egiten den* bakoitzaren historiaren arabera, artatu deneko baliabideen arabera, eta abarren arabera.

Oso modu positiboan baloratzen da *arreta eta jasotako tratua*, baita baliabide horietan lanean dihardutenen *profesionaltasuna* ere. Emakumeak ez juzgatzean, generoaren gaiaren inguruan duten ezagutzan izugarrian, eta abarretan islatzen da profesionaltasun hori.

«Oso-oso pozik nago Zutiturekin eta Suspergintzarekin, jende ikaragarria da, zoragarria, inoiz ez dizute ezer aurpegiratzen, ondo egin edo gaizki, laguntzeko daude, izugarriak dira... ez daukat hitzik sentitzen dudana adierazteko.»

Modu positiboan ere baloratzen da *espezialistak tratu txarrean soilik ez zentratzea* eta bizitzako hainbat alderditan arreta jarri haratago joatea.

⁵ Aipatutako baliabide batzuk: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua, 900 840 111 telefono bidezko Arreta Zerbitzua (biak Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendari-tzaren pean); Tratu txarrak jasandako emakumearentzako laguntza (Udal baliabidea-Gizarte Zerbitzuak); Tratu txarrak eta sexu-erasoak jasandako biktimentzako laguntza psikologikoko Programa, Zutituk kudeatuta (Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte-Ekintza Sailarekiko lankidetzaren hitzarmena); eta etxean indarkeria jasaten duten emakumeentzako familiako esku-hartze Programa, Suspergintzak kudeatuta (Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean).

Orokorrean, bizitako esperientzia gainditzeko *beharrezkoak ez ezik nahitaezkoak* diren baliabidetzat jotzen dira eta baliabide mota hauek aurkitu izanaren eta *errekuperazio prozesuan duten eraginaren garrantzia* azpimarratzen da.

Baina baliabide horiek era positiboan baloratzen dira, batez ere, *emakumeek irekitzeko eta askatzeko gunea aurkitzen dutelako*.

«Guztia kanporatzen laguntzen dizu, edozer konta diezaiekezu eta edonola profesional horiei, askatasun osoz hitz egin dezakezu, moztu gabe... nik hasieran ez nuen dena kontatu, baina pixkanaka guztia kontatuz zoaz eta askatuz joaten zara, nik jada pasa dudan horretaz, nik jada pasa dut. Talde batean jaso dut arreta psikologikoa, salaketa jarri ondoren, bizpahiru hilabete igaro ondoren, baina oraindik daukazun pisua oso handia da, pixkanaka askatuz zoaz guztia kontatzen duzun arte eta mundua hor dagoela ikusten eta ulertzen hasten zara, lagunak egin ditzakezula, gozatu...»

Gainera, *euren egoeraren eta bizitako esperientzien kontzientzia hartzeko oinarritzkoa* da, baita *gertatzen dena ulertzeko ere*.

«Oso ondo, hasieran saioekin bakarka hasi nintzen eta oso gogorra egin zitzaidan, zu bakarrik ari baitzara hizketan zeure bizitzaz eta gauza askotaz ohartzen zara, eta ez zenekizkien gauzak ateratzen hasten zara, normalak izan gabe normaltzat jotzen zenituen kontuez, gauzak nola eta norekin bizi izan dituzun argitu arte oso gogorra izan zen, baina gero ondo. Taldean zoragarri, oso ondo, asko ikasten duzu, hobeto ezagutzen duzu zeure burua eta guztia gainditzen duzu, beraz guztiaren artetik onena, haxe. (...) eta batez ere konturatzen zara gu ez garela berberak, baina eurak (erasotzaileak) lehengo berberak direla.»

«Zure buruari entzuten diozunean ohartzen zara zer pasa duzun, gauza bat baita pentsatzen duzuna eta bestea hitz egiten duzunean ateratzen dena.»

«Joan izanak asko lagundu dit... zerbait gertatzen zitzaidan, ez nekien zer eta joan egin nintzen... azkar artatu ninduten... pertsona batek bidatu ninduen onerako... berak atera zizkidan ulertzen ez

nituen gauza asko zergatik gertatzen zitzaizkidan eta gero bedera-tzi hilabeteko talde terapia egin nuen. »

«Taldera joateari esker hobeto ikusi ahal izan dut zer gertatzen zi-tzaidan, zer egin behar nuen ikusi dut, oso eskertuta nago eta ho-rrexegatik nago hemen. »

Era berean, baliabide horiek emakumeei *beren burua baloratzen ikas-ten laguntzen diete* eta antzeko egoera bizi izan duten eta antzeko proze-suan sartuta dauden beste *emakume batzuekin identifikatzeko aukera* ikusten dute:

«Batez ere maitatua izan zaitezkeela ulertzen laguntzen dizute. »

«(talde terapia) niri indar handia eman dit... zoragarri, zoragarri, oso eskertuta nago... oso gomendagarria da... oso garrantzitsua da jakitea ez zizutela zuri bakarrik izan gabe emagaldutik deitzen... »

Denbora igaro ahala, tratu txarra gainditu dutela uste duten emaku-meek aitortzen dute *laguntza psikologikoa oinarritzat izan dela amaiera-raino iristeko eta gai hori kitatzeko*.

«Delituko Biktimari Laguntzeko Zerbitzuan bi urtez egon nintzen; kleenex kaxekin hasi nintzen eta amaieran, guztia bota eta iraga-nean utzi nuen; zoriontasuna existitzen bada, ni zoriontsu naiz. »

«Laguntza psikologikoa oso baliagarria egin zait amaieraraino ja-rraitzen, prozesua luzea izan baita. Momentu oro babestuta senti-tu naiz. Horrenbeste denboran koldar sentitu naiz eta orain gus-tura nago, hartu nuen erabakiarekin gustura. »

«Egun batean bera etxera etorri zen, oraindik sartzen uzten nion garaian... oilartu egin zen eta nik... joan zenean, beno, bota egin nuen, nire seme txikia txaloka hasi zen, nik hankak dardarka ni-tuen... baina, ostia, kitto! Badakit zertarako den talde terapia. »

«Bi pertsona zoragarriarekin egon naiz, eurekin berriz jaio naiz... oso ondo sentitzen naiz, oso seguru sentitzen naiz eta ez daukat beldurrik. »

Talde terapiak –oro har, tratamendu osoan zehar– amaierara iristen direnean, bi eratako sentsazio nahasiak izan ohi dituzte emakumeek. Alde batetik, taldea uzteak sortzen duen pena eta, beste alde batetik, profesionalak jada hobeto daudela identifikatu izanagatiko poza. Amaierako prozesuan baliabidea berriz erabiltzeko aukera ematen zaie emakumeei, behar dutela uste badute, eta horrek lasaitasun handia ematen die.

«Tratamendu psikologikoa bi urtez baino gehiagoz egin nuen eta amaitu nuen arren, eurek ez dizute inoiz aterik ixten eta gaur, adibidez, Jainkoak ez dezala nahi, baina laguntza beharko banu, euren atera irekita dago eta edozein momentutan joan zaitezke.»

«Bi urte egon nintzen, guztiekin kontaktua izaten jarraitzen dut (gizarte laguntzaileak, aholkulari juridikoak,...). Behar ditudan edo nauten bakoitzean (jardueraren batean parte hartzeko) bada-kite hemen naukatela eta nik ere haiek.»

Edozein modutara ere, askotan prozesuaren hasieran emakumeek *baliabide hori ukatu ohi dute* ez dutelako onartu nahi arreta psikologikoa behar dutenik –nahiz gainditu ondorena, oso eskertuta sentitzen dira–.

«Lehen urtean ez nuen onartzen psikologoarengana joatea, ondo nengoela... baina gero hasten zara ikusten fisikoa pasa egiten dela eta psikologikoa geratzen dela.»

«Hasieran utzi egin nahi izan nuen, esan nion nire lagunari: “Ez xxxx, ni ez noa horra gehiago, bakoitzak bere drama kontatzen du eta nik nahikoa badaukat nirearekin...” Baina nire lagunak, nire lagun onak, hau lagun psikologoa da eta gainera nik esan ohi dudana moduan “borroka”, egurra ematen dit: “zu joan horra, joan beharra daukazu-eta”.»

«Lehen urtean ni armadura bat nintzen... ez nuen laguntza psikologorik nahi izan, ondo nengoela esaten nuen, ahaztu egin nahi nuela... gertatzen dena da une bat iristen dela ahaztu ezin duzuna.»

Ildo horri jarriki, kasu batzuetan antzeman da *genero indarkeriaren biktima egoeraren gaineko kontzientziarik ez izateak* emakume batzuei baliabide mota horietara jotzea eragozten diela.

«Nik ez nuen pentsatzen tratu txarrak jasaten nituenik, nire jokae-ra normala ez zela ohartu nintzenean konturatu nintzen, eta egun batean Madrilgo telefono batera deitu nuen eta hemengo batera igorri ninduten, baina nik ez nekien, edo ez nuen nahi jakin... ez nekien elkarte hauek bazirenik...»

«Ni apur bat errebotez hasi nintzen, familiarteko zaintzaile bati el-kartera laguntzean, han apur bat hariei tiraka... eta arreta psiko-logikoa aurkitu nuen, eta oso ona, aurrez erabat deuseztatuta neukan autoestimua berreskuratzen duzu.»

Beste alde batetik, eta nahiz eta modu orokorrean ez izan, emakume batzuek kezka edo beldurra agertu dute bizi duten egoera emozionalari bu-ruzko balorazioak beren kontra bihur baitaitezke, esate baterako, seme-alaben zaintzagatiko borrokan. Beldur hori areagotu egiten da terapia abian jarri ahala, eta horrek berriro ere adierazten du emakumeek sentitzen dutela besteentzat etengabe zalantzan daudela.

«Ni psikologoarekin ezin naiz ireki, ezin naiz fidatu, alde batetik bai, baina bestetik ez... psikologo pribatua izango balitz... baina administrazioarekin lotuta daude, baina beldurra ematen dit, nik neure semearen tutoretzarik ere ez daukat, nik ez dakit nire aurka erabiliko duten... ni ez naiz inongo momentuan erlaxatzen (...) psikologoak esaten didan lehen gauza zera da: “beno, hau konfi-dentziala da, baina logikoa da, adibidez, berak urruntze aginduak betetzen ez baditu eta zuk salatzen ez baduzu, nik abisua pasa beharko dudala”. Eta aurreko astean esan nion: “jo, ni izugarriz-ko larritasuna ari naiz sentitzen, lehen baino okerrago nago-eta”... eta berak zera esaten dit: “ba, indartsu egon behar duzu, zeren nik umeei eragin diezaieken ahuleziaren bat ikusten badut esku hartuko dut eta umeen ongizatea da lehengoa”. Noski, baina niri beldurra ematen dit. Orain esan zidanean pentsatu nuen: “orain neskatoa igual kenduko didate”»

Baliabide psikologikoak modu positiboan baloratzen diren arren, ba-daude *arreta psikologikoaren gaineko informazio faltarekin*, baliabide psi-kologiko espezializatuetara jotzeko aukerekin edota saio terapeutikoen maiztasunarekin loturiko hainbat kontu emakumeek zalantzan jartzen di-tuztenak:

- Beste baliabide batzuei buruz (judizialak, osasunaren ingurukoak, eta abar) eskainitako informazioarekin gertatzen den moduan, emakume parte-hartzaileek nabaritzen dute, *hasieran ez dutela nahikoa informaziorik izan baliabide psikologikoen gainean*: zein aukera edo bide dituzten eskura (gizarte zerbitzuak, genero indarkeriaren biktimen arreta psikologikoan espezializatutako baliabideak, eta abar), nora joan, eta abar. Horrexegatik, euretako askok kasualitatez izan dute arreta psikologikorako hainbat zerbitzuren berri edo eurek hartu behar izan dute informazioa lortzeko ardura edo, kasu batzuetan, baliabide pribatuetara jo dute publikoak ezagutzen ez zituztelako.

Informazio falta, baliabide psikologiko espezializatuetara jotzeko aukerak edo saio terapeutikoen maiztasuna dira gairik eztabaidatuenak

«Oso pozik nago jaso nuen arretarekin, baina nik ordaindu behar izan nuen guztia, nire terapeuta itzela izan zen eta nire izualdiak eta antsietate krisiak gainditzen lagundu zidan. Nik ordaindu behar izan nuen inork ezertaz informatu ez ninduelako, nire psikologoak ere ez zidan esan tratu txarrak jasaten ari zen norbait nintzenik eta doako terapiara jo nezakeenik. Ertzaintzan hainbat aldiz egon nintzen, azkenekoan salaketa jarri nuen, baina ez ninduten inoiz informatu, ezta fiskalak, abokatuak eta familia medikuak ere...»

«Ni berriz jaio nintzen jasotako laguntza psikologikoaren ondotik, eta esan beharra daukat kosta egin zitzaidala. Izan ere, biktimen laguntzarako elkartera joan nintzenean galdera mordoa egin zizkidaten, nolabait esateko ni aztertzen ari ziren eta inork ez zidan ezer eskaintzen, jada irtetera nindoanean esan nien: “baina esan didazue laguntza psikologikoa eskaintzen duzuela, ezta?”, “beno, nahi baduzu deitu hona” esan zidaten, hau da, ez zidaten eskaini, nik aurkitu nuen, eta agian galdetu izan ez banie, ez zidaten eman ere egingo... baina behin emanda, oso ondo.»

- Emakumeen iritziz erasotzailearekin haustura gertatu ondoko lehen unea da emozionalki zailena eta laguntza psikologiko handiena behar duena. Hala ere, antzematen da arreta espezializatuko baliabide publikoek emandako hasierako arreta psikologikoa (gizarte

zerbitzuen laguntza psikologikoa, eta abar) *gehiegi atzeratzen dela* (kasurik gehienetan hilabete edo hilabete eta erdi eskaera jasotzen denetik artatzen den arte). Ondorioz, batzuetan, hainbat emakumek euren kabuz gaian espezializatuta ez dauden baliabideetara jotzea erabaki dute (laguntza psikologikoa anbulatorioan, kontsulta pribatuak) edo, alderantziz, hasierako arreta gizarte langilearen edo gizarte hezitzailearen eskutik etorri da, hau da, espezializatu gabeko langileen eskutik.

«Tratu txarraren telefonora deitzea asko kostatu zitzaidan. Ertzain batek eman zidan eta nik esan nion: “hau zertarako ematen didazu?” eta berak: “badaezpada behar baduzu ere”. Nik uste nuen tratu txarraren erruduna neu nintzela, gero ja konturatzen zara... Hiruzpalau hilabete igaro zirenean, deitzeko erabakia hartu nuenetik arreta psikologikoko baliabidean hartu ninduten arte hilabete eta erdi edo bi hilabete igaro ziren, orduan jada oso-oso gaizki nengoen.»

- Gainera, emakumeek uste dute lehen arreta jaso ondorengo *terapien maiztasuna eskasegia* dela (hilean behin edo hamabost egunean behin) eta, ordea, *saio gehiago behar dituztela sentitzen dute, saio batetik bestera tarte txikiagoarekin*, hausturaren ondorengo etaparik zailena baita (astean saio bat edo bi lehen hilabetean edo hilabeteetan).

Era berean, hilabete batzuk igarotakoan *arreta psikologikoa luzatu egiten da denboran* (saio gutxiago eta maiztasun txikiagoarekin), baina profesionalen erabakia zalantzan jartzen ez badute ere, *hasierako unea* (lehen hilabeteak) *gainditzen dutenean jasotzen dutena baino arreta handiagoaren beharra* ikusten dute emakumeek. Ondorioz, zenbaitetan, zenbait emakumek antzeman dute baliabide horien eskaera hain handia izanik, artatutako emakumeen prozesuak bizkortu egiten direla haiek itxi eta beste emakume berri batzuei zerbitzua eman ahal izateko, eta beste batzuetan eten egiten direla edo emakumeak beste baliabide batzuetara zuzentzen direla ezin zaielako arreta gehiago eskaini, adibidez, langileen artean baja bat gertatzen denean.

«Nire sententzia da apur bat presionatu egiten gaituztela prozesua bizkortzeko. Ez da egiten egin beharko litzatekeen denboran, apur

bat bizkortu egiten baitute baliabidea behar duten pertsona gehiago baitaude, hala aurreratuta dauden emakumeekin bizkortu egiten dute prozesua lehenbailehen amaitu eta aukera beste bati emateko. Agian toki honetan beste pertsona bat behar dute edo behintzat kasuak desbideratzea. >>

Beste alde batetik, prozesuak linealak ez direnez, *emakume bakoitzaren beharretara egokitutako arreta* eskatzen da. Izan ere, prozesuan zehar une batzuetan laguntza psikologikoa beharrezkoagoa da beste batzuetan baino, baina une horiek ez diete igarotako denborari erantzuten, une bakoitzeko bizipenei baizik. Kasu horietan emakumeak eurak dira laguntza psikologikoa bilatu eta eskatu behar dutenak.

<< Biktimaren arretarako telefonora deitu nuenetik hiruzpalau egun igaro nituen gizarte laguntzako zerbitzura joaten. Zerbitzu horrek beste norabait bidaltzen zaitu, baina beste toki batera (arreta psikologikora) bidali ninduten arte hilabete edo hilabete eta erdi igarotzen dute. Saioan astean behin izan ohi ziren, hasieran banakoak eta gero taldekoak, oso ondo. Han alta eman zidaten, baina berari salaketa jarri behar izan nionean, nabaritu nuen berriz ere laguntza behar nuela hondokoa jotzera bainindoan. >>

Aipatzekoa da emakume parte hartzaile batzuek, *familia medikuek bidalita, laguntza psikiatrikoa ere jaso dutela*. Kasu batzuetan familia medikuak tratu txarraren berri bazuen, beste kasu batzuetan berriz, emakumea depresio edo antsietate egoeran zegoela zekien. Muturreko egoeretan (norbere buruaz beste egiten saiatzea, adibidez) edo gaixotasun kronikoe-tan, emakumeak automatikokiko bidali dira baliabide psikiatrikoetara.

Azkenik, adierazi beharra dago, antzemandakoaren arabera, *emakume parte hartzaileen seme-alabek arreta psikologiko urria jaso dutela*. Badirudi oso kasu gutxitan egon dela arreta mota hori, eta beste kasu batzuetan, seme-alabak eurak dira, haztean, eskatzen dutenak. *Genero indarkeriaren biktima izan diren adingabeen arretarako baliabide espezializatuen gaine-ko ezagutza falta* antzematen da. Horregatik, amen inizatibaz psikologo pribatuengana jotzen da, eta kasu horietan profesionalak tratu txar egoerak jasan dituzten adingabeak artatzeko dituen ezagutzen edo espezializazioaren baitan egongo da arreta horren kalitatea eta, bereziki, amaren gaitasun ekono-

mikoaren baitan, kasu askotan ezin baitu zerbitzu hori denbora oso luzez ordaindu, edo ezta halakorik jasotzea planteatu ere.

6.5. Larrialdiko baliabideak: harrera etxeak

Emakume parte hartzaileen artetik oso gutxik erabili dituzte harrera etxeak. Kasu batzuetan adierazi dute ez zutela baliabide horiei buruzko informaziorik jaso, baina kasu gehienetan laguntzarako sare soziala zuten gehienek aukera hori baztertu egin dute familiarterekin edo lagunekin egotea nahiago zutelako. Horrexegatik, badirudi *emakume etorkinek erabiltzen dutela gehiago* baliabide mota hori, ez baitute laguntza emango dien sare sozialik izaten. Edonola ere, talde honetako emakumeek baliabide hori ez dute ia erabili.

Sare sozialik gabeko kasuetan ere, emakume parte hartzaileen batek adierazi du nahiago izan duela harrera etxera ez joan. Arrazoiak ondokoak dira: *ume jaioberri batekin toki ezezagun batera joateak eragiten duen beldurra, baliabide horren gainean igorritako mezu negatiboa, baliabide horretara jotzeko batere dirurik ez izatea, une horretan laguntza psikologiko falta, eta abar.*

«Niri etxebizitza bat eskaini zidaten, baina jada hamabi ordu igarota zeuden, nire alabarekin, jan gabe, ez neukan ez tabakorik, ez dirurik... Eta orduan esaten dizute: “bi aukera dituzu, edo Aterpera (Urgentziazko Harrera Zerbitzua) beste ama batzuekin batera, jakin ezazu zer jende motarekin... edo ez al daukazu lagun baten etxera joaterik?” Lagunen baten etxea? Ni nengoen egoe-ran? Momentu horretan babes behar duzu, une horretan lagunduko zaituen pertsonaren bat. Ni ez nintzen Aterpera (Urgentziazko Harrera Zerbitzua) joatera iritsi, dirurik gabe ezin nintzela joan pentsatu bainuen, jan gabe, haur batekin... Ez nintzen arrisku horretatik pasa, baina lagun bati deitu behar izan nion xxxxxx-ean (beste autonomia erkidego bat) zegoen nire familiari deitu ahal izateko dirua eskatzeko...»

Baliabide hori erabili duen emakumeetako batek zalantza egiten du harrera etxea kokatuta zegoen ingurunearen egokitasunari buruz, eraso-

tzaileak erraz aurkitzeko moduko tokian baitzegoen («mundu guztiak daki nora eramango zaituzten ez badaukazu nora joan») eta *ez zelako toki segurua*, eta hori oinarritzkoa da gehien baloratzen dena segurtasuna den unean.

Dena dela, harrera etxeei buruz kezka eragiten duena zera da, oso zaila izaten dela *berehalako erabaki bat hartu behar izatea* (oro har, gainera, epaiketa azkarrean egun osoa igarotzen den une berean izaten da) eta tratatu txar egoera salaketa bidez, urruntze agindu bidez, eta abarren bidez justifikatu behar izatea.



7. Kapituluu

LAN SAIOETAN PARTE
HARTU DUTEN EMAKUMEEN
PROPOSAMENAK

Lan saioetan zehar, genero indarkeriaren biktima diren emakumeek jasandako bizipena ahalik eta azkarren eta ahalik eta modu eraginkorrenean gainditzeko hobetu beharreko hainbat alor identifikatu dituzte.

Jarraian adieraziko ditugu emakumeek identifikatu dituzten hobetu beharreko alorrak eta horietako bakoitzerako egin dituzten proposamen zehatzak:

- Informazioa eta orientazioa.
- Sistema judiziala eta abokatu-laguntzarako sistema.
- Sistema poliziala eta babes-neurriak.
- Legegintza-sistema.
- Ardurapeko seme-alabak.
- Laguntza sozialak eta ekonomikoak.
- Heziketa eta sentsibilizazioa.

Atal honetan bakarrik jasotzen dira taldeak adostutako proposamenak.

Informazioa eta orientazioa

- *Baliabide bakarra* egotea, guztiari buruzko informazioa ematen duena («leihatila bakarra») edo, gutxienez, bakarra eremu instituzional bakoitzean.
- Dauden hainbat baliabideren arteko *koordinazioa*.
- *Emakume bakoitzaren kasura eta beharretara egokitutako* informazioa eta aholkularitza.
- Komisarian edo osasun zentroan emakumea *orientatuko duen pertsona*.
- *Emakume bakoitzaren kasuaren jarraipena*, bai hasierako unean (salaketa jartzen denean), baina baita hurrengo asteetan ere.
- *Salaketa jartzeak edo atestatu judiziala irekitzeak izan ditzakeen ondorioen* gaineko informazioa ematea emakumeei.
- *Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza eskaintzen dieten baliabide guztiek espezializazio eta prestakuntza handiagoa izateko arreta berezia jartzea.*
- 900840111 telefono bidezko 24 orduko Arreta Zerbitzuari publizitate handiago egitea.
- *Biktimari Laguntze Zerbitzuari* publizitate handiagoa egitea.
- Berarizkoak ez diren gainerako baliabideetan *laguntza sozial eta ekonomikoei buruzko informazioa hobetzea*.

Sistema judiziala eta abokatu-laguntzarako sistema

- Prozesu judizialak bizkortzea.
- Epaitegien arteko koordinazio handiagoa.
- Genero indarkeriaren biktima diren emakume guztiei *doako abokatu-laguntza ematea*, (laguntza hori izateko baremo ekonomikoak kenduta).
- *Kargak kontuan hartzea* (hipotekak, adingabea,...) *doako justizia izatea zehazten duen errenta-kopuruaren arabera*: egungo egoerak salaketak ez aurkeztea eragin dezake.
- *Aiten bisita-orduak* zehazterakoan (eta ez alderantziz), *adingabeen eta amen beharrianak eta ohiturak* aintzat hartzeari *lehentasuna ematea*.
- Erasotzaileari eta biktimari *egun desberdinetarako deia egitea*.
- Epaiketa azkarra egin bitartean emakumeek epaitegian igaro behar dituzten *orduak murriztea*.
- *Haurtzaindegia zerbitzua* ematea, epaiketa azkarra egiten den bitartean haurrak bertan hartzeko.
- *Epaitegia, eta bereziki, itxarongela* behar bezala egokitzea biktima-*ren intimitatea* bermatzeko eta erasotzailearekin *elkartu beharrik* ez izateko.
- *Arreta berezia jartzea* epaileen *prestakuntzan eta espezializazioan*
- Genero-indarkeriako kasuak defendatzen dituzten *ofiziozko abokatu-
tuen nahitaezko prestakuntzan eta espezializazioan* arreta berezia jartzea.

- *Dibortzioari buruzko epaiak biktima ekonomikoki erasotzailearen-gandik bereizten duela bermatzea* (ondasunen bananketa edo irabazpidezko ondasunen eraentza, ezkondata zeuden edo ez, hipoteka zuten edo ez, etab. kontuan hartu gabe).
- *Urruntzeko aginduen kontrol handiagoa* (erasotzaileen joan-etorriena,...) disuasio-neurri telematikoak erabiliz (zaintza-eskumuturrekoa, etab.).
- *Erasotzailea hobeto kontrolatzea mantenu-pentsioen ordainketa egiten ez denean*, zigorgabetasuna galarazteko (haren ondarea iker-tzea kaudimengabea dela dioenean).
- *Erasotzaileak berrezteko programetara joateko beharra izan dezan eskatzea.*
- *Erasotzailearen kontrol judizialerako neurrietan arreta berezia jar-tzea.*

Sistema poliziala eta babes-neurriak

- *Kasu bakoitzak duen arriskuaren balorazioa egitea eta, beharrezkoa bada, babeserako berariazko polizia-neurriak eskaintzea, babes judizialeko neurririk dagoen ala ez alde batera utzita.*
- *Agenteen prestakuntzan eta espezializazioan arreta berezia jartzea.*
- *Babes-neurrietan arreta berezia jartzea, emakumeentzat funtsezkoak baitira eta emaitza ona izan baitute (eskumuturrekoa, bizkar-tzaina,...).*
- *Emakumeak babestea salaketa jartzen dutenetik hurrengo egunean epaiketa azkarra egiten den arte: emakumeei laguntzea, erasotzailei jarraipena egitea, etab.*
- *Erasotzailea kartzelan sartu behar bada, emakumea jakinaren gainean jartzea erasotzaileari berari esaten zaio unean edo aurretik, arriskuak ekiditeko irteeren eta baimenen kasuan.*
- *Babes-neurriak kasu bakoitzaren arabera egokitzea, aldez aurreko berariazko balorazioa egin eta gero.*

Legegintza-sistema

- *Erasotzailearekiko geroagoko lotura ekonomikorik ez dagoela* bermatzea: haren zorrak emakumeak bere gain hartu beharrik ez izatea, etab.
- Mantenu-pentsioen berme-funts soziala sortzea (FOGASaren modukoa), hain zuzen, beroriek kobratzeko emakumeek epaitegian borrokarik egin ez dazaten.
- Zigorrak gogortzea eta horiek osorik betetzen direla bermatzea.
- Erasotzailearen kontrako neurri penalak eta zibilak gogortzea eta zabaltzea.
- Erasotzaileei *espetxeko errenta ukatzea*.

Ardurapeko seme-alabak

- *Haurren eta nerabeen eskubideak lehenestea* (indarkeriazko ingurunean ez bizitzea, arriskurik ez izatea, etab.) *aitak bere seme-alabak ikusteko eskubidea aitortzen duen Legearen aurretik.*
- *Hitzarmen erregulatzailerak ezartzen direnean, adingabeei entzutea eta haien iritziei jaramon egitea.*
- *Adingabeentzako laguntza psikologikoa eskaintzea* (banakako terapiak), baita haurtzaroan erasotzailearekin bizi izan diren adin nagusikoentzat ere (biktimak direlako), amen prozesu terapeutikoarekin batera.
- *Erasotzaileak seme-alabei egiten dizkien bisiten kopurua murriztea*, zeren sarritan aitarekiko harremana berorientzat ona ez baita izaten eta, gainera, askotan kaltegarria eta laguntza terapeutikoaren prozesuaren kontrakoa izan ohi baita.
- *Adingabeak genero indarkeriaren zuzeneko biktimak direla aitortzea*, arrisku egoeretan daudenean *babes neurriak hartu ahal izateko.*
- *Erasotzaileei euren seme-alaben gainean guraso-ahala izatea eragozte*a: gauza guztien gainetik seme-alaben babesa lehenestea.
- *Seme-alabek erasotzailea ikustea eragotzi dutelako emakumeek izan ditzaketen ondorio penalak ezabatzea.*

Laguntza sozialak eta ekonomikoak

- Laguntzak izapidetzea eta *ebaztea erraz eta azkar*.
- Laguntza sozial orokorretarako bidea mugatzen duten *baldintzak ezartzerakoan genero-indarkeriari dagozkion egoerak kontuan hartzea*.
- *Alokairu sozialeko etxebizitzaren poltsa zabaltzea*, egun hutsik dauden etxebizitzak egokituz.
- Bereziki *50 urtetik gorako emakumeak* kontuan hartzea, lan munduan sartzeko dituzten zailtasunak direla eta (nahikoa kotizatu ez izanagatik, osasun-arazoengatik, beren ardurapean ondorengo ahai-de minusbaliatua izateagatik, etab.).
- Genero-indarkeriaren biktimea diren emakumeei, behar dutenean, *Babes Ofizialeko Etxebizitza bat alokairuan bermatezea*.
- Beharra duten emakumeei *Babes Ofizialeko Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko laguntzak* handitzea.
- Genero-indarkeriaren biktimea diren *emakumeen laneratzea sustatzea*, berorien kontratazioa eragiteko neurrien bidez.
- Genero-indarkeriaren biktimea diren *emakumeen gizarteratzea lortzeko laguntzea*; hain zuzen, erabiltzen ari diren neurrien bidez, esate baterako, terrorismoaren biktimekin.

Heziketa eta sentsibilizazioa

- *Irakasleak prestatzea* ikasleak gai honen inguruan sentsibilizatzeko, batez ere nerabeak eta gazteak.
- *Heziketa emozionalaren* lanari arreta handiagoa eskaintzea ikastetxeetan.
- Genero-indarkeriaren *emakume biktimen lekukotasunak ikasgeletara* eramatea (emakumeen egokitasuna aztertu ondoren eta entrenamendua eginda).
- Seme-alaba txikiak dituzten familientzat *berdintasunari buruzko heziketa-gidak* egitea (beste gai batzuen inguruan sentsibilizatzeko dauden antzekoak).
- Genero-indarkeriako *kasu ezagun baten aurrean* edo *susmoa dagoenean* nola jokatu behar den herritarrei hobeto azaltzea: eman beharreko urratsak, zer ez den egin behar, etab.
- *Komunikabideek emakumeen kontrako indarkeriaren tratamenduari buruz izan beharreko prestakuntza eta sentsibilizazioan arreta berezia jartzea.*
- *Genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeen elkarteak sortzea*, beren interesen defentsan indarrak batzeko eta tratatu txarrak jasan dituzten emakumeen arteko lotura izateko.



8. Kapitula

BIBLIOGRAFIA

Erreferentziazko bibliografia

ALBERDI, I.; «Cómo reconocer y cómo erradicar la violencia contra las mujeres», in Obra Social «La Caixa». *Violencia: Tolerancia Cero*, Bartzelona, La Caixa Fundazioa, 2005.

ALBERDI, I. eta MATAS, N.; *La violencia doméstica: informe sobre los malos tratos a mujeres en España*, Bartzelona, La Caixa Fundazioa, 2002.

APARICI, E. eta ESTARELLAS, C.; *Historias de vida, historias de violencia. Si mi pareja me hace daño, ¿por qué sigo con ella?*, Intress bilduma, Aresta SC argitaletxea, 2010eko maiatza, 282. or.

Append. Actitud de la juventud de Portugalete ante la Igualdad de Oportunidades entre mujeres y hombres, Bilbo, Portugaleteko Udala, 2004, 72. or.

Arartekoa; *Eusko Legebiltzarrari Arartekoak egindako txosten berezia, Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn. Txosten berezia*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Zentrala, 2003ko abendua.

AYLLON ALONSO, E.; *En la Violencia de Género no hay una Sola Víctima. Atención a los hijos e hijas de mujeres víctimas de violencia de género*, Save The Children, 2011ko otsaila.
http://www.savethechildren.es/ver_doc.php?id=111

BLANCO, P.; «La violencia contra las mujeres jóvenes. Atención y prevención desde los servicios sanitarios», in P. Blanco eta C. Ruiz-Jarabo

(Zuz.); *La violencia contra las mujeres: prevención y detección: cómo promover desde los servicios sanitarios relaciones autónomas, solidarias y gozosas*, Madril, Díaz de Santos, 2004.

Bizkaiko Foru Aldundia. Gizarte Ekintzako Saila; Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria. 2009ko emaitzak eta 2005-2009 konparazioa Bizkaiko Lurralde Historikoan, 2009.

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia; *Laguntza juridikoa, laguntza psikologikoa, familietan esku-hartze espezializatua eta babes ematea etxean indarkeria jasaten duten emakumeentzat*, Foru Aldundiaren, Udalerrien eta Mankomunitateen Baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan, 2007ko azaroa.

CALVETE, E. eta CORRAL, S.; *Estudio de la conducta violenta en parejas jóvenes desde la perspectiva de género*. Emakundek diruz lagundutako ikerketa. Prentsan.

CANTERA., I., ESTÉBANEZ, I. eta VÁZQUEZ, N.; *Violencia contra las mujeres jóvenes: la violencia psicológica en las relaciones de noviazgo*, Deustu-San Inazioko Modulu Psikosozialeko Emakumearen Arretarako Zerbitzua, Bilbo, Emakunde, Eusko Jaurlaritza eta BBK, 2009, 105. or.

CORRAL, S.; *Conductas violentas en parejas jóvenes: prevalencia y perfil cognitivo asociado al ejercicio de la violencia*, 2006ko doktoretza tesia, prentsan. Bilbo, Deustuko Unibertsitatea.

Emakunde; *EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana. IX. Legealdirako jarraibideak*, Vitoria-Gasteiz, 2011.

Emakunde; *Etxean tratatu txarrak eta sexu erasoak pairatzen dituzten emakume biktimei arreta hobea eskaintzeko Erakunde arteko II. Hitzarrena*, Gasteiz, 2009.

Eusko Jaurlaritza; *EAEko biztanleriaren segurtasun pertzepzioa*, Vitoria-Gasteiz, Lehendakaritza, 2006.

- Eusko Jaurlaritza, Herrizaingo Saila, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza; *Genero-indarkeriaren biktimea diren emakumeak EAEn. 2010eko urteko txostena*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo Saila, 2011.
- Eusko Jaurlaritza, Herrizaingo Saila, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza; *Genero-indarkeriaren kontrako Jaurlaritzaren 2011-2013rako I. Jarduteko Plana*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo Saila, 2011.
- Generalitat de Catalunya, Departamento de Interior, Relaciones Ciudadanas y Participación; *I Encuesta de Violencia Machista en Cataluña*, 2010.
- Gobierno de Cantabria; *Estudio sobre violencia de género y actitudes sexistas en la población joven de Cantabria*. Santander, Dirección General de la Mujer, 2007.
- IBAÑEZ GONZÁLEZ, M.; *Violencia doméstica en Euskadi: malos tratos a la mujer: Análisis y definición del proceso de ruptura con una relación de maltrato*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Zentra- la, 2004.
- IBAÑEZ GONZÁLEZ, M.; *Violencia doméstica en Euskadi: Malos tratos a la mujer*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Zentra- la, 2003.
- Instituto Andaluz de la Mujer; *La opinión de la sociedad acerca de la violencia doméstica*, Deustoko Unibertsitatea, Bilbo, 2003.
- Instituto de la Mujer, Secretaría General de Políticas de Igualdad; *III Macroencuesta sobre la violencia contra las mujeres. Informe de resultados*, 2000ko apirila, Madril, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, 2006.
- Observatorio Estatal de Violencia sobre la Mujer; *III Informe anual del Observatorio Estatal de Violencia sobre la Mujer. Informe ejecutivo*, Madril, Berdintasun Ministerioa, 2010.

Save The Children; *En la Violencia de Género no hay una Sola Víctima. Resumen ejecutivo*, Save The Children, 2011ko otsaila.
http://www.savethechildren.es/ver_doc.php?id=112

UPV-EHU, Soziologiako Departamentua; *Violencia de género en las relaciones de pareja de adolescentes y jóvenes de Bilbao*, Zerbitzuan 47. zk., 2010eko ekaina, 121-134 orr.

VÁZQUEZ, Fernando; «Prevalencia y factores de riesgo de la violencia contra la mujer en estudiantes universitarias españolas», Santiago Konpostelakoa Unibertsitatea, Psikologia Fakultatea, *in Psicothema* 2010, 22. alea, 2. zk., 196-201 or.

Iturriak

Amnistia Internazionale <http://www.es.amnesty.org>

Arartekoa <http://www.ararteko.net/>

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia
<http://www.observatorioviolencia.org>

EAEko Delituaren Biktimari Laguntzeko Zerbitzua
<http://www.justizia.net/asistencia-victima>

Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokia
<http://www.observatorioviolencia.org/>

Emakumearen Institutua <http://www.inmujer.es/>

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsoria
<http://www.euskadi.net/defentsoria>

Emakunde <http://www.emakunde.euskadi.net>

Europako Kontseilua. Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko espezialisten taldea.

Fundación Mujeres fundazioaren genero indarkeriaren behatokia
<http://www.observatorioviolencia.org>

Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza
<http://www.interior.ejgv.euskadi.net>

Genero Indarkeriaren Kontrako Erakunde Feministen Estatuko Sarea
<http://www.redfeminista.org>

Indarkeriaren Ikerketarako Reina Sofia Zentroa
<http://www.centroreinasofia.es>

Araudi-esparrua

Espainia. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Osorako Neurriei buruzkoa. 2004ko abenduaren 29ko EAO. 313, 4216-42197.

Espainia. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorrari buruzkoa, 2007ko martxoaren 23ko EAO. 71, 12611-12645.

Espainia. 27/2011 Legea, abuztuaren 1ekoa, Gizarte Segurantzaren sistema eguneratzeari, egokitzeari eta modernizatzeari buruzkoa. 2011ko abuztuaren 2ko EAO. 184: 87495-87544 (eta hutsen zuzenketa urriaren 5eko 240. zenbakiko EAOn)

Euskadi. 329/2003 Dekretua, abenduaren 23koa, lanerako laguntzak arautzen dituen. 2003ko abenduaren 31ko EHAA. 255, 25557-25612.

Euskadi. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Eusko Legebiltzarrak emandakoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa. 2005eko martxoaren 2ko EHAA. 042, 0327-2651.

Euskadi. 2006ko urriaren 4ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, genero-indarkeriaren biktima izandako emakumeentzako ekintza positiborako neurriei buruzkoa. 2006ko urriaren 11ko EHAA. 195, 19662-19667.

- Euskadi. 4/2008 Legea, ekainaren 19koa, Terrorismoaren Biktimak Onartu eta haiei Ordaina emateko dena. 2008ko uztailaren 1eko *EAO*. 124, 17308.
- Euskadi. 29/2011 Dekretua, martxoaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko koordinazio-mekanismoei buruzkoa. 2011ko martxoaren 24ko *EHAA*. 58, 1644.
- Euskadi. 2011ko maiatzaren 30eko Agindua, Herrizaingoko sailburuarena, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan xedatutako dirulaguntzak genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako eman eta ordaintzeko prozedura ezartzen duena. 2011ko maiatzaren 30eko *EHAA*. 101, 2830.
- Euskadi. 264/2011 Dekretua, abenduaren 13koa, Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokia sortu eta bere funtzionamendua eta osaera arautzeko dena. 2011ko abenduaren 28ko *EHAA*. 2457, 6268.